

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

*5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa.*

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2018ko azaroaren 12a.—Markel Olano Arrese, (7588)  
diputatu nagusia.

HITZAURREA

Gure inguruko ordezkari bidezko sistemak sendo finkatuta badaude ere, eta horietako instituzioen garapena erabateko normaltasunez gauzatu arren, ezinbestekoa da dituzten mugei aurre egitea, eta demokraziaren esperientzia partaidetzarako beste modu batzuetara zabalitzea, sistema demokratikoa aberasteko, are dituen oinarriak tinkoago egiteko ere.

Gizarte gero eta konplexuagoak sortzen ari dira, eta horietan gizarte behar berriak agertzen. Eta horrek guztiak areagotu egiten du gizartearen eta instituzioen arteko tartea handiagotzeko arriskua, aldi berean ageriko egitearekin batera herritarrek parte hartzeko egiten dituzten eskari berriak.

Gure gizartearen izaera demokratikoa sakonagotzearen herritarren partaidetza zuzenerako formak bultzatzeko beharra begibistan ari da geratzen, azken aldi honetan, nazio zein nazioarte mailako instituzio eta foro garrantzitsuetan; eta gure testu juridiko oinarrikoetan ere tokia aurkitzen ari da. Ildo horretatik, gogora ekarri behar ditugu Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Kartan jasotako printzipioak, Europar Batzordearen «Europar Gobernantza» liburu zurian, 2001eko uztailaren 25ekoan, jasoak, eta horri jarraipena eman dioten lanak, bazterrean uzteke, inolaz ere, Europar Ministro Kontseiluaren Batzordeak 2001eko abenduaren 6an egin Gomendioa, herritarrek bitzitza publiko lokalean izan beharreko partaidetzari buruzkoa.

Herritarren partaidetzak, politika publikoak zehazteko eta politika horiek gauzatu edo kudeatzeko unean herritarrek ekarpen erabakigarria egin ahal izateko gaitutako modu eta prozeduren garapenaren bitartez, leku nagusia bete behar du botere publikoen jardueran, zehazki Foru Aldundiaren jardueran, foru arau honen aplikazio esparruari dagokionez. Herritarren partaidetzak ezinbesteko tresna izan behar du, botere publikoek gizartearen gobernu onaren bidetik jo dezaten. Ildo horretatik, herritarren partaidetzak harreman zuzena du botere publikoen jardueraren gardentasunarekin; izan ere, aurretiazko ezinbesteko baldintza du botere publikoen jardute aurreikuspen eta asmoen gardentasuna, hori gabe oso zaila izango bailitzateke herritarren partaidetza hori modu eraginkorrean praktikara eramatea; bestetik, emaitza du botere publikoen jardueraren eta jarduera hori finkatzen den oinarrien gardentasuna. Horregatik botere publikoek eta Foru Aldundiak, foru arau honen aplikazio espa-

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

*Norma Foral 5/2018, de 12 de noviembre, sobre Participación Ciudadana.*

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 5/2018, de 12 de noviembre, sobre Participación Ciudadana», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 12 de noviembre de 2018.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (7588)

PREÁMBULO

La firme consolidación de los sistemas democráticos representativos de nuestro entorno y la plena normalidad en que se desarrollan sus instituciones no ha evitado la necesidad de enfrentarse a sus límites, abriendo la experiencia democrática a otras formas de participación, que enriquezcan el sistema democrático, reafirmando sus fundamentos.

La emergencia de sociedades crecientemente complejas, que crean nuevas necesidades sociales, incrementa el riesgo de distanciamiento entre sociedad e instituciones y, simultáneamente, crea nuevas demandas de participación por parte de la ciudadanía.

La necesidad de impulsar formas directas de participación ciudadana, que profundicen la naturaleza democrática de nuestras sociedades, viene siendo puesta de manifiesto en los últimos tiempos en las más relevantes instituciones y foros nacionales e internacionales y encuentran su asiento en nuestros textos jurídicos fundamentales. En este sentido es necesario recordar los principios recogidos en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea, las reflexiones contenidas en el Libro Blanco «La Gobernanza Europea», de la Comisión Europea, de 25 de julio de 2001, y los trabajos que le han dado continuidad, así como la Recomendación del Comité de Ministros del Consejo de Europa, de 6 de diciembre de 2001, sobre la participación ciudadana en la vida pública local.

La participación ciudadana, a través del desarrollo de las distintas formas y procedimientos habilitados para que la ciudadanía pueda contribuir de forma decisiva a la determinación de las políticas públicas y a las formas en que esas políticas se ejecuten o gestionen, debe ocupar un lugar central en la actuación de los poderes públicos, en concreto por parte de la Diputación Foral, en lo que se refiere al ámbito de aplicación de esta norma foral. La participación ciudadana tiene que convertirse en una herramienta indispensable del buen gobierno de la sociedad por parte de los poderes públicos. En este sentido, la participación ciudadana tiene una relación directa con la transparencia en la actuación de los poderes públicos, en la medida en que, al mismo tiempo, requiere como presupuesto previo la transparencia en las previsiones e intenciones de actuación de los poderes públicos, sin la que sería muy difícil de poner en práctica de forma efectiva; y, por otra, garantiza, como resultado, la transparencia

rruan, beren gain hartu behar dute, erantzukizunez betiere, herritarren partaidetza ahalbidetzeko lana horretarako ekimena gizartetik bertatik sortzen denean, baina, horretaz gain, baita ekimen hori aktibatze eta bultzatzeko eginkizuna ere, herritarren erantzukizuntzat eta erantzukizun propioztat gainera, hain zuzen partaidetza prozesuek zentraltasun egiazko eta eraginkorra izan dezaten gobernantzan eta dagozkien politika publikoen definizio eta kudeaketan, politika horien diseinuaren eta zehaztapenaren hasieratik beretik.

Gipuzkoako Lurralde Historikoak elkarte mugimenduaren tradizio luze eta sendoa du. Hori tresna izan da, gizarteak interes publikoko zenbait arlotan parte hartu ahal izatera begira. Elkarte jardueraren bitartez, Gipuzkoako herritarrek interes publiko handi-handiko proiektuak bultzatu dituzte. Denbora askoan zehar egoera zailetan egin behar izan zuten, beste testuinguru batean, zailtasun itzelak topatu zituzten proiektuak bultzatuta. Hala eta guztiz, ekimen horietako askok atarramentu ona izan zuten, eta ekarpen erabakigarria egin zioten Euskal Herri desberdin baten eraikuntzari. Ikastolen adibidea dugu esanguratsuen, inolako zalantzarik gabe. Elkarte mugimenduaren indarra eta Gipuzkoan beste gizarte baten eraikuntzari egin ekarpenen garrantzia ez da, baina, esperientzia horretara mugatzen. Ezta, izugarri garrantzitsua den arren, Gipuzkoako gizarte ekimenean kemenarekin gehien identifikatzen den ekimenetako beste bat den kooperatibismoa ere. Esperientzia bi horiek, gizartearen moldaketan izan dituzten izaera orokorreko ondorioengatik, Gipuzkoan gizarte bizitzaren esparru askotara, esaterako kultura, kirol edo aisiara, zabaldu den praktika sozial baten adierazpenik garrantzitsuen eta deigarriena dira, ez besterik. Herritarren partaidetzarako foru arau honen bitartez tresna eta bide egokiak ezarri nahi dira, gizartetik beretik sortzen diren elkarte ekimenak ordezkatzeko asmorik gabe ordea, Gipuzkoako gizartearen partaidetzarako indarrak ekarpen erabakigarria egin ahal izan diezaion zera publikoaren gobernuari.

Gogoeta hauen esparruan, foru arau honek tresna izan nahi du, politika publikoak zehazteko eta horiek gauzatu edo kudeatzeko unean herritarren partaidetza egiaz erdigunean egon dadin, berezkoa zaion aplikazio esparruan betiere, hots, Foru Aldundiak, Lurralde Historikoko gobernuaren organo exekutiboak izaki, dituen eskumenen esparruan.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu egin zuten 1/2010 Foru Araua, uztailaren 8koa, herritarren partaidetzari buruzkoa. Foru arau horrek zeharo berritzailea izan nahi zuen. Eta berritzailea izan zen, bai, zeren eta, lehenik, exekuzioko prozedura administratiboen esparruan jaso egin baitzituen partaidetza zuzenerako prozedurak eta tresnak. Ezarri ziren partaidetza zuzenerako formak –foru arau honetan mantentzen dira– gobernu erakunde baten esparruan, hau da, Foru Aldundiaren esparruan zabaltzen dira. Horrek oso esangura handia du, zeren eta, tradizionalki, partaidetza zuzenerako formak gobernu erakunde exekutiboan esparrutik kanpo geratu ohi baitira. Bigarrenik, berritzailea izan zen ezarri ziren partaidetzarako tresna espezifikoaren ezaugarriengatik; oraingo foru arauan, berriz, ahalegina egin da tresna horiek modu malguago eta garatuago batez zehazteko. Eta hirugarrenik, oinarrian konbentzimendu bat zuelako izan zen berritzailea, horren arabera herritarren partaidetza eraginkorra sustatzeko funtsezkoa baita emakumeen eta gizonen partaidetza baldintza berdinetan sustatzen eta bermatzen duten neurriak ezartzea.

Foru arau horretako 46. artikulua ezartzen du ezen, indarrean jartzen denetik bost urte igarota, Foru Aldundiak, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen bidez, eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren laguntzaz betiere, foru arauan ezarritako herritarren partaidetzarako sistemaren ebaluazio orokorreko txosten bat egingo duela eta Batzar Nagusietara bidaliko duela. Artikulu bereko 2. apartatuak, segidan, ezartzen du ezen Batzar Nagusiek, Foru Aldundiak bidalitako

de la actuación de los poderes públicos y de los fundamentos en que se asienta esa actuación. Por estas razones, los poderes públicos, la Diputación Foral en el ámbito de aplicación de esta norma foral, deben asumir, con responsabilidad, no solo la tarea de facilitar la participación ciudadana cuya iniciativa surja de la propia sociedad, sino, aún más, la tarea de activar esa iniciativa, de impulsarla, como una responsabilidad propia, y no solo de la ciudadanía, de forma que los procesos de participación asuman una centralidad real y efectiva en la gobernanza y en la definición y gestión de las políticas públicas que les corresponden, desde el propio momento inicial de su diseño y determinación.

El Territorio Histórico de Gipuzkoa tiene una larga y sólida tradición de asociacionismo, que ha servido como instrumento de participación de la sociedad en diferentes sectores de interés público. A través de la actividad asociativa, la ciudadanía de Gipuzkoa ha impulsado proyectos de enorme interés público. Durante mucho tiempo, lo tuvo que hacer en difíciles condiciones, en un contexto diferente, impulsando proyectos para lo que tuvo que enfrentarse a enormes dificultades. A pesar de ello, el éxito acompañó a muchas de esas iniciativas, contribuyendo de forma decisiva a la construcción de una Euskal Herria diferente. El ejemplo de las Ikastolas es, sin duda, el más significativo. La fortaleza del asociacionismo y la importancia de sus aportaciones a la construcción de una sociedad diferente en Gipuzkoa no se limita, sin embargo a esta experiencia. Tampoco se limita, con ser de enorme importancia, a otra de las iniciativas que más se identifican con la pujanza de las iniciativas sociales en Gipuzkoa: el cooperativismo. Estas dos experiencias son, únicamente, la expresión más importante, por sus repercusiones de carácter general en la conformación de la sociedad, y más llamativa de una práctica social que se extiende en Gipuzkoa a numerosos ámbitos de la vida social, como la cultura, el deporte o el ocio. Con esta norma foral de participación ciudadana, se pretende establecer instrumentos y canales adecuados para que, sin tratar de sustituir a las iniciativas asociativas que surjan de la propia sociedad, la pujanza participativa de la sociedad de Gipuzkoa pueda contribuir de forma determinante al gobierno de lo público.

En el marco de estas reflexiones, la presente norma foral pretende ser un instrumento que contribuya de forma efectiva a la centralidad de la participación ciudadana en la determinación de las políticas públicas y su ejecución o gestión en el ámbito de aplicación que le es propio, es decir, el de las competencias de la Diputación Foral como órgano ejecutivo de gobierno del Territorio Histórico.

Las Juntas Generales de Gipuzkoa aprobaron la Norma Foral 1/2010, de 8 de julio, sobre participación ciudadana. Esta norma foral trató de ser profundamente innovadora. Lo fue, en primer lugar, porque incorporó procedimientos e instrumentos de participación directa en el ámbito de los procedimientos administrativos de ejecución. Las formas de participación directa que se establecieron –y que perviven en la presente norma foral– se despliegan en el ámbito de una institución de gobierno como la Diputación Foral, lo que tiene una gran significación, en la medida en que las formas de participación directa han quedado, tradicionalmente, fuera del ámbito de instituciones ejecutivas de gobierno. En segundo lugar, por las características de los específicos instrumentos de participación que se establecieron y que en la presente norma foral se han tratado de concretar de forma más flexible y más desarrollada. Y en tercer lugar, porque se asienta sobre la conciencia de que, para promover una participación ciudadana eficaz, es fundamental establecer medidas que fomenten y garanticen la participación de mujeres y hombres en igualdad de condiciones.

El artículo 46 de esa norma foral establece que, transcurrido un periodo de cinco años desde su entrada en vigor, la Diputación Foral, por medio de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, asistida por la Dirección Foral para la Participación Ciudadana, procederá a realizar un informe global de evaluación del sistema de participación ciudadana establecido en aquella, dando traslado del mismo a las Juntas Generales. El mismo artículo, en su apartado 2, establece seguidamente que

txostenean oinarriturik, foru arauan «ezartzen diren partaidetzarako tresna eta prozeduren aplikazioaren ebaluazio orokor bat egingo» dutela. «Ebaluazio orokorrerako» prozesu horretan, eta beste baldintza batzuekin batera, entzun egin behar zaie herritarren erakundeei, ezarri eta araututako partaidetza prozesuetan parte hartu duten pertsoneri eta toki erakundeei. Azkenean, eta orain azpimarratzea komeni denera joz, «ebaluazio orokor» hori egin ondoren Batzar Nagusiek egokien irizten zieten akordioak hartu behar zituzten 1/2010 Foru Arauan jasotako partaidetzarako tresna eta prozedurak mantentze, deuseztatze edo erreformatzera begira.

Aipatu 46. artikuluko horretan ezarria betez Batzar Nagusiek, 2015eko azaroaren 25eko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Batzordearen erabakiaren bitartez, ponentzia espezifiko bat eratu zuten, zenbait adituren eta partaidetza prozesuak egin eta garatzearekin harreman zuzena zuten talde eta erakundeen ordezkarien partaidetzarekin «ebaluazio orokor» bat egitearren. Ponentziak, egoki iritzi zien lanak egin ondoren, 2017ko urtarrilaren 13ko akordioaren bitartez onartu egin zuen herritarren partaidetzari buruzko Konklusio Txostena, eta Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Batzordeari aurkeztu zion. Batzorde horrek, 2017ko urtarrilaren 25eko saioan, behin betiko onartu zuen Ponentziaren txostena.

Txosten hori oinarri harturik Foru Aldundiak, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren bitartez, partaidetza prozesu bat diseinatu eta gauzatu zuen, herritarren partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Araua berrikusteko eta gaurkotzeko proposamenak jasotzearen, hain zuzen herritarren partaidetzari buruzko foru araua gaurkotzera begira txosten exekutibo bat egin ahal izateko eta, horren bitartez, hobeto egikaritu ahal izateko Batzar Nagusiek onartutako proposamenak. Horretarako, adituen partaidetza izan zen, eta, zehazki, 4 panel bereizi eratu ziren, jatorriaren eta espezializazioaren arabera sailkatuta.

Horrela, 1. panelean Gipuzkoako kontseilu eta foroetako kideak zeuden, 2. panelean udalak zeuden, 3. panelean gizarte ordezkariak, kasu honetan erakunde sektorialak, eta, 4.ean pertsona adituak.

Prozesuan zehar landu egin ziren Batzar Nagusien Txostenean aurreikusitako gomendio guztiak, aipatutako bederatzi gaien ingurukoak, honakoak baitziren: a) hizkuntza; b) pertsona fisiko eta juridikoen egoera; c) elkarte eta erakundeen erregistroa; d) partaidetzarako metodologia; e) tresnen malgutasuna, foru arauaren 23. artikuluko jasoaren arabera; f) foru arauaren 32. artikuluan aipatutako Partaidetza Programa; g) gardentasuna, informazioa eta partaidetza; h) herritarren epaitegiak; eta i) Gizarte Kontseilua.

Foru Aldundiak prestatutako txosten exekutiboak aldameta ugari egiten dizkio herritarren partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauaren testuari. Alabaina, foru arauaren arkitektura eta herritarren partaidetzarako tresnak eta prozedurak beren horretan mantentzen dira, nahiz egin zaizkien aldaketek hobeto egiten dituzten batzuk zein besteak. Izan ere aldaketa horiek, sarritan puntualak edo xehetasun mailakoak badira ere, oso garrantzi praktikoa handia dute zeren eta, onartu zirenetik igarotako urteen ondoren eta epe horretan zehar egin den aplikazioa dela eta, aukera ematen baitute herritarren partaidetzaren sistema oro har hobetzeko, hobekuntza espezifiko batez, gainera, partaidetzarako dauden tresna eta prozedurei dagokienez. Partaidetza sistemak uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak ezarriarekiko halako jarraitutasun bat bazuela-eta haren aldaketa bat egiteko ideiak indarra hartu bazuen ere, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzearen eta ulertzea erraztera begira foru arau berri bat prestatzera jo da, oraingoa ordezkatzearren. Dena den, berri horretan txertatu egingo da lehengo hartan jasotako erregulazioaren parte handi bat.

las Juntas Generales, sobre la base del informe remitido por la Diputación Foral, procederán a realizar una «evaluación global de la aplicación de los instrumentos y procedimientos de participación» establecidos en ella. Un proceso de «evaluación global» en el que, entre otros requisitos, se debe dar audiencia a entidades ciudadanas, a personas que hayan participado en los procesos participativos establecidos y regulados en la norma foral y a las entidades locales. Finalmente, en lo que ahora interesa resaltar, una vez realizada esa «evaluación global», las Juntas Generales debían adoptar los acuerdos que considerasen más adecuados respecto al mantenimiento, derogación o reforma de los instrumentos y procedimientos de participación contenidos en la Norma Foral 1/2010.

En cumplimiento de lo establecido en el citado artículo 46, las Juntas Generales, por acuerdo de la Comisión de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, de 25 de noviembre de 2015, procedieron a constituir una Ponencia específica con el fin de realizar, con la participación de distintas personas expertas y representantes de grupos y entidades con una relación directa con la realización de procesos participativos, la referida «evaluación global». La Ponencia, tras la realización de los trabajos que consideró oportunos, aprobó, mediante acuerdo de 13 de enero de 2017, el Informe de Conclusiones sobre participación ciudadana, que elevó a la Comisión de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad. Esta Comisión aprobó definitivamente, en sesión de 25 de enero de 2017, el Informe de la Ponencia.

Tomando como base el citado Informe, la Diputación Foral, a través de la Dirección Foral para la Participación Ciudadana diseñó y procedió a llevar a cabo un proceso participativo para la revisión y obtención de propuestas de actualización de la Norma Foral 1/2010, de 8 de julio, sobre participación ciudadana a fin de elaborar un informe ejecutivo sobre la actualización de la norma foral de participación ciudadana que permitiese la mejor ejecución de las propuestas aprobadas por las Juntas Generales para lo que se contó con la participación de personas expertas, y en concreto, se constituyeron 4 paneles diferenciados, clasificados en función de su procedencia y especialización.

De este modo el Panel 1 estaba compuesto por miembros de Consejos y Foros de Gipuzkoa, el Panel 2 por Ayuntamientos, el Panel 3 por representantes de la sociedad, en este caso por entidades sectoriales y el Panel 4 por personas expertas.

A lo largo del proceso se trabajaron todas las recomendaciones previstas en el Informe de las Juntas Generales en relación a los nueve temas indicados: a) el lenguaje; b) la situación de personas físicas y jurídicas; c) el registro de asociaciones y entidades; d) la metodología de participación; e) la flexibilidad en los instrumentos, según el artículo 23 de la norma foral; f) el programa participativo citado en el artículo 32 de la norma foral; g) transparencia, información y participación; h) los jurados ciudadanos; i) el Consejo Social.

El informe ejecutivo elaborado por la Diputación Foral contiene un elevado número de modificaciones al texto de la Norma Foral 1/2010, de 8 de julio, sobre participación ciudadana. Sin embargo, la arquitectura de la norma foral y los instrumentos y procedimientos de participación ciudadana se mantienen en sus mismos términos, aunque las modificaciones incorporadas mejoran unos y otros en aspectos que, aun siendo muchas veces de carácter puntual o de detalle, tienen una gran importancia práctica, en la medida en que, tras los años transcurridos desde su aprobación y la aplicación realizada durante ese periodo, permiten mejorar de forma significativa el sistema de participación ciudadana, en su conjunto; y, de forma específica, en lo que se refiere a los distintos instrumentos y procedimientos de participación. Si bien la continuidad del sistema de participación respecto al establecido en la Norma Foral 1/2010, de 8 de julio, abonaba la idea de realizar una modificación de la misma, a fin de garantizar el principio de seguridad jurídica y facilitar su comprensión, se ha optado por la elaboración de una nueva norma foral que sustituirá a la actual en la que no obstante se integra gran parte de la regulación contenida en la misma.



Foru arau hau prestatzeko uanean emakumeen partaidetza begira dauden muga eta oztopoen zeharo kontziente izan gara. Emakumeek diskriminazio mota asko jasaten dute; emakumeen kasuan bat egiten dute desberdintasun mota ezberdinek (adina, jatorria, etab...), eta horiek generoarekin bat egiten dutenean, diskriminazio modu kualitatiboki desberdin bat dute emaitza. Zailagoa da diskriminazio horri ekiten eta, horrenbestez, jarduera espezifiko eskatzen du, zuzenean emakumeen partaidetza soziala bultzatzera zuzendu bat, hain zuzen emakumeek gizarte demokratiko baten garapenean egiten duten ekarpena, gizonetako berdintasunez egina, benetakoa eta eraginkorra izan dadin. Horregatik, foru arau honetan jasotzen diren neurriek helburu transbertsala dute, hau da, sustatzea eta bermatzea emakumeen eta gizonen herritar gisako partaidetza orekatua, generoak beste desberdintasun ardatz batzuekin bat egiten duela kontuan hartzen duena, asmo garbia izanik, betiere, hemen aurreikusten diren herritarren partaidetzarako formak erabiltzen diren esparru guztietara genero politikak helarazteko eta garatzen den prozesu bakoitzean eragin efektiboa izateko. Hala, emakumeen eta gizonen berdintasun efektiborako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (15. artikulua), Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (3. artikulua) eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak (36. eta 37. artikulua) xedatzen dutena bezela, araua emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioarekin bat planifikatu da, genero berdintasunak eta sexuen arteko orekak gidatutako herritarren partaidetza sustatzearen.

Herritarren partaidetzaren eginkizun nagusiak isla izan behar du partaidetza prozesuak garatzeko herritarren ekimenei zein horien bitartez iristen diren konklusioei Foru Aldundiak ekiten dien moduan. Foru Aldundiak segitzen du ordenamendu juridikoaren arabera dagozkion eskumenen titular izaten, erabateko indarrez, eta hartzen dituen neurrien eta bere eskumenak gauzatzen eta kudeatzen dituen moduaren erantzule izaten segitzen du. Horrek aukera ematen dio, bai herritarren partaidetzarako prozesuak egiteko herritarren ekimenak zentzu negatiboan ebazteko, bai horrelako prozesuak egiten direnean horietatik ateratzen diren konklusioetatik urruntzeko. Baina era arrazoiuan egin behar du, zehatz-mehatz azalduz zentzu negatiboko ebazpenak oinarri dituen arrazoiak.

Toki erakundeek, udalek bereziki, leku pribilegiozkoa dute herritarren partaidetzaren garapenera begira, herritarrengandik hurbilen dauden erakunde demokratikoak direlako. Ildo horretatik, Foru Aldundiak bi eginkizun osagarri hartu behar ditu bere gain. Alde batetik, toki erakundeekiko elkarlana bultzatu behar du, bere eskumenen esparruan herritarren partaidetzarako tresnak hobeto eta eraginkortasun handiagoz erabili ahal izan daitezken. Gainera, horrela erakunde haien jardueratik onurak jaso ahal izango ditu, eta baita haiek esparru honetan garatzen dituzten tresna eta bitartekoetatik datozkionak ere, udal erregistroen baliozkotasunaren kasuan esaterako. Bestetik, toki erakundeen eskura jarri behar ditu bai laguntza teknikoak bai ekonomikoak, haien esparruan herritarren partaidetzaren garapena bultzatzeko, eta haiek beren eskumenak erabiltzeko uanean duten autonomia goitik behera errespetaturik. Ondorio horietarako, Foru Aldundiak bultzatu egin behar du Lurralde Historikoko toki erakundeekiko lankidetzak-hitzarmen alderdi anitzekoak izenpetzea, eta erakunde arteko foroak sortzea bultzatu behar du halaber, urtarrilaren 17ko 1/2017 Foru Dekretuak sortutako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioak adibide moduan ezarritako bidean.

Foru arauak zazpi titulu, berrogeita zazpi artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako xedapen bi dauzka.

I. tituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu. Horretan, foru arauaren xede eta helburua zehazteaz gain, izango dituen aplikazio esparru objektiboa eta subjektiboa mugatzen dira. Horiek, zehazki, Foru Aldundiari dagozkion eta Gipuzkoako Lurralde His-

Al elaborar esta norma foral se ha sido plenamente consciente de las limitaciones y obstáculos existentes para la participación de las mujeres. Ellas son objeto de múltiples tipos de discriminación; en ellas tiene lugar la intersección de diferentes tipos de desigualdad (edad, origen, etc.) que, al confluir con el género, tiene como resultado una forma de discriminación cualitativamente diferente, más difícil de remover y que, en consecuencia, exige una actuación específica, directamente dirigida a impulsar la participación social de las mujeres de forma que su contribución al desarrollo de una sociedad democrática, en pie de igualdad con respecto a los hombres, sea real y efectiva. Las medidas contempladas en la presente norma foral tienen, por ello, el objetivo transversal de promover y garantizar una participación ciudadana equilibrada de mujeres y hombres, que tenga en cuenta la intersección del género con otros ejes de desigualdad, con la intención de incorporar las políticas de género a todos los ámbitos en que se utilicen las formas de participación ciudadana aquí previstas, debiendo tener una incidencia efectiva en cada uno de los procesos que se realicen. Así, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres (artículo 15), en la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (artículo 3) y en la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres (artículos 36 y 37), la norma se ha planificado de acuerdo al principio de igualdad de oportunidades de mujeres y hombres, a fin de promover una participación ciudadana guiada por el objeto de la igualdad de género y equilibrada entre ambos sexos.

El papel central de la participación ciudadana debe reflejarse en la forma en que la Diputación Foral afronta tanto las iniciativas ciudadanas para la realización de procesos participativos como las conclusiones que se alcancen a través de ellos. La Diputación Foral sigue siendo titular, en toda su plenitud, de las competencias que le corresponden de acuerdo con el ordenamiento jurídico; y sigue siendo responsable de las medidas que adopta y de la forma en que ejecuta y gestiona sus competencias. Ello le permite tanto resolver en sentido negativo iniciativas ciudadanas para la realización de procesos de participación ciudadana como distanciarse de las conclusiones que se alcanzan en los mismos, cuando se realicen. Pero debe hacerlo de forma motivada, precisando, en detalle, los motivos sobre los que se asienta una resolución en sentido negativo.

Las entidades locales, especialmente los ayuntamientos, ocupan un lugar privilegiado para el desarrollo de la participación ciudadana, por su condición de instituciones democráticas más cercanas a la ciudadanía. En este sentido, la Diputación Foral debe asumir dos tareas complementarias. Por una parte, debe impulsar la colaboración con las entidades locales para permitir una mejor y más efectiva utilización de los instrumentos de participación ciudadana en el ámbito de sus propias competencias, beneficiándose de la actividad de aquellas entidades, así como de los instrumentos y medios que las mismas hayan desarrollado en este ámbito, como la validez de los registros municipales u otras. Por otra, debe poner a disposición de las entidades locales la asistencia, tanto técnica como económica, para impulsar el desarrollo de la participación ciudadana en el ámbito propio de las mismas, respetando plenamente la autonomía de estas en el ejercicio de sus competencias. A estos efectos, la Diputación Foral debe impulsar la suscripción de convenios de colaboración, de carácter multilateral, con las entidades locales del Territorio Histórico e impulsar la creación de foros interinstitucionales, en la vía establecida, ejemplificativamente, por el Espacio Interinstitucional de Participación Ciudadana, creado por Decreto Foral 1/2017, de 17 de enero.

La norma foral se estructura en siete títulos y contiene cuarenta y siete artículos, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

El título I contiene las disposiciones generales en las que además de determinar el objeto y finalidad de la norma foral, se delimita el ámbito objetivo y subjetivo de aplicación de la misma, que se concreta en el ejercicio de las competencias de

torikoko udalerrietako edozeinetan bizi diren pertsonen zein foru arauan bertan horretarako definitzen diren gipuzkoar erakundeek eragiten dieten gobernu eta administrazio eskumenen erabilera gauzatzen dira. Era berean, partaidetza prozesuetatik ondorioztatzen diren emaitzek Lurralde Historikoko gobernu eta administrazio jardueran izan dezaketen eragina jasotzen da.

II. tituluak herritarren partaidetzari lotutako eskubideak arautzen ditu, ordenamendu juridikoan ezarritako baldintzetan; eskubide horiek, zehazki, honakoak dira: Foru Aldundiaren eskumena diren gai publikoen kudeaketan partaidetza prozesuen bidetik parte hartzeko eskubidea; izapidetze bidean dauden erabakitze prozedurei buruzko informazioa Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko zabalkunde publikoaren bitartez jasotzeko eskubidea; partaidetza prozesuak egitea eskatzeko eskubidea, Lurralde Historikoko udalerrietako edozeinetan bizi diren pertsonen dutena; eta herritarrek, herritarren erakundeek eta toki erakundeek foru arauan aurreikusten diren partaidetza prozesuak abiatzea proposatzeko duten ekimen eskubidea.

III. tituluak lau kapitulu hartzen ditu, eta bertan arautzen dira herritarren partaidetzarako tresnak. Foru arauak bereziki dihardu Foru Aldundiari dagozkion politika publikoen gainean erabakitze prozedura administratiboetan txertatuko diren deliberaziozko partaidetza prozesuak ezartzearen inguruan. Teknika horrek, izan ere, aukera ematen du erabakitze prozeduran gizarte interes eta itxaropenen aberastasun guztia jasotzeko, erabakiak hartzeko prozedurarentzako era onuragarrian gainera. Deliberaziozko partaidetza prozesuez gain, beste tresna osagarri batzuk ere aurreikusten dira, hala nola herri kontsultak edo foru arauen aurreproiektuak prestatzeko laneko partaidetza, eta horien esparruan koka daitezke, esaterako, partaidetzako aurrekontuena bezalako esperientziak edota azken garaiotan zenbait esparrutan probatzen ari diren beste batzuk. Azkenean bada partaidetzako tresnen ezaugarrien gaineko aurreikuspenak praktikan malgutzea ahalbidetzen duen aurreikuspen bat.

IV. tituluak bi kapitulu dauzka, eta herritarren erakundeak jasotzen ditu, partaidetza prozesuen garapenari dagokionez, erakunde horiek Herritarren Partaidetzarako Erakundearen Foru Erregistroan izena emateko aukerarekin batera. Era berean, herritarren partaidetza sustatzeko neurriak eta barneko zein kanpoko prestakuntza-jarduerak aurreikusten dira, herritarren partaidetzaren kultura sustatzeko helburuz.

V. tituluak, bere lau kapituluetan, arautu egiten du herritarren partaidetzaren antolaketa. Lehen-lehenik Partaidetza Programa arautzen da, horrexek izan behar baitu herritarren partaidetzaren arloan Foru Aldundiaren jarduera biltzen duen proposamen multzoa jasotzeko tresna.

Gainera, foru arau honetan ezartzen den herritarren partaidetzarako sistema berritzaileak eskatzen du lortu nahi diren xedeetarako eta jaso diren berrikuntzetarako gobernu sistema egokia ezartzea. Partaidetza sistema txertatu egiten da konfiantzazko harremanek eta erantzukizun politikoak Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren artean eratzen duten ardatzean. Egitura horretan txertatzen da Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua, horixe izango baita partaidetzaren arloko organo aholku-emailea. Kontseiluak jarduera sozialagatik edo partaidetzaren esparruan nabarmendu diren pertsonak izango ditu kide.

Foru arau honetan ezartzen den herritarren partaidetzaren gobernuak zuzendaritza eta koordinazio organo bat behar du. Ondorio horietarako, Foru Aldundiko departamentu guztiak ordezkaturik egongo diren Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea arautzen da. Baina, aldi berean, partaidetza prozesuen kudeaketak autonomia tekniko eta sinesgarritasuna behar ditu, bai partaideen aurrean bai, orokorrean, herritarren aurrean. Horregatik, partaidetza prozesuak garatzeko erantzukizun

gobierno y administración que corresponden a la Diputación Foral y que afectan a las personas residentes en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa así como a las entidades guipuzcoanas a tal efecto definidas en la propia norma foral. Asimismo, se contempla la incidencia de los resultados de los procesos participativos en el ejercicio de la acción de gobierno y administración del Territorio Histórico.

El título II regula los derechos relativos a la participación ciudadana, en los términos establecidos en el ordenamiento jurídico, y en concreto: el derecho a participar en la gestión de los asuntos públicos que son competencia de la Diputación Foral mediante la realización de procesos participativos; el derecho a la información sobre los procedimientos de decisión que se encuentren en tramitación mediante su difusión pública en la sede electrónica de la Diputación Foral; el derecho de petición de las personas residentes en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico para la realización de procesos de participación; y el derecho de iniciativa de las personas residentes, de las entidades ciudadanas y de las entidades locales para proponer la apertura de los procesos participativos previstos en la norma foral.

El título III se divide en cuatro capítulos y regula los instrumentos de participación ciudadana. La norma foral gira, de forma muy destacada, sobre el establecimiento de procesos de deliberación participativa que se insertarán en los procedimientos administrativos de decisión de las políticas públicas que corresponden a la Diputación Foral. Se trata de una técnica que permite incorporar al procedimiento de decisión toda la riqueza de los intereses y expectativas sociales de una forma que sea beneficiosa para el procedimiento de adopción de decisiones. Junto a los procesos de deliberación participativa, se prevén otro tipo de instrumentos complementarios, como las consultas populares o la participación en la elaboración de anteproyectos de normas forales, en cuyo ámbito pueden encajarse experiencias como la de los presupuestos participativos u otras que se están ensayando en los últimos tiempos en diferentes ámbitos. Finalmente, hay una previsión que permite la flexibilización, en la ejecución práctica, de las previsiones sobre las características de los instrumentos participativos.

El título IV se estructura en dos capítulos y está dedicado a las entidades ciudadanas en el desarrollo de los procesos de participación y a la posibilidad de que se inscriban en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación. Asimismo, se prevén medidas de fomento de la participación ciudadana y la promoción de actividades formativas tanto internas como externas con el objetivo de fomentar la cultura de la participación ciudadana.

El título V en sus cuatro capítulos, regula la organización para la participación ciudadana. En primer lugar, se regula el Programa Participativo como instrumento en el que se deben contener el conjunto de propuestas en materia de participación ciudadana que enmarcan la actividad de la Diputación Foral.

Además, un sistema de participación ciudadana innovador como el que se establece en esta norma foral requiere el establecimiento de un sistema de gobierno adecuado a los fines perseguidos y a las innovaciones incorporadas. El sistema participativo se inserta en el eje de relaciones de confianza y de responsabilidad política existente entre Juntas Generales, por una parte, y Diputación Foral, por otra. En esta estructura se inserta un Consejo Social para la Participación Ciudadana del Territorio Histórico, como órgano consultivo en materia de participación, que estará integrado por personas que hayan destacado por su actividad social o en el ámbito de la participación.

El gobierno de la participación ciudadana establecido en esta norma foral requiere de un órgano de dirección y coordinación. A esos efectos se regula la Comisión Foral para la Participación Ciudadana en la que estarán representados todos los departamentos de la Diputación Foral. Pero, al mismo tiempo, los procesos de participación requieren ser gestionados con autonomía técnica y credibilidad frente a los y las participantes y, en general a la ciudadanía, por lo que, si bien se establecen en

kizuna bere gain hartuko duen herritarren partaidetzaren arloko organo eskudunaren eginkizunak orokorrean ezartzen badira ere, horiek zehazteko unean Foru Aldundiko departamentuak zein horietako bakoitzaren jarduera esparru eta eginkizunak zehazteko foru dekretura jo beharko da, egitura organiko eta funtzionalari buruzko kasuan kasuko foru dekretuetara bezalaxe.

VI. titulua herritarrek toki esparruan izan dezaketen partaidetzari eskainita dago, eta toki erakundeetan partaidetza sustatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aholkularitza teknikoa eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa arautzen ditu.

Azkenik, partaidetza prozesuak ebaluatu ere egin behar dira, horrelakoak martxan jartzera begira etengabeko hobekuntza prozesu bat finkatzearen. Foru arau honek segitzen dion foru arauak ezarri praktikak jasotzen du ezen, ebaluazio horrek, funtzionamendu epe zentzuzko baten ondotik, arauak ezarritako sistema osoari eragin behar diola, Batzar Nagusiek oinarri sendoa izan dezaten, hain zuzen ere, araua eraberritzeko eta egokitzeko prozesuari ekiteko. Horregatik VII. titulua partaidetza sistema eta partaidetza prozesuak ebaluatzeari eskainita dago.

Horrenbestez, foru arau honen bitartez zenbait arau-helburu lortzea bilatzen da, horientzat guztientzat transbertsala dela, betiere, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa. Helburu horiek ukitzen dituzten esparruak honakoak dira:

- a) esparru politikoa: eskubideak garatzea eta demokrazia sendotze eta legitimatzea;
- b) esparru ekonomiko-administratiboa: eraginkortasuna hobetzea, inertzia zuzentzeko bultzadak, erabakiak hartzea sinplifikatzea;
- c) banaketa esparrua: interes eta subjektu sorta zabalagoa hartzea kontuan;
- d) erabakitze esparrua: erabakien oinarri sendoagoa, eztabaida publikoari, informazio hobeari eta zuzendaritza politikoa, gizarte esperientzia eta teknikarien espezializazioa konbinatzeari esker;
- e) esparru juridikoa: prozedura administratiboaren kontzeptio berria, interes publikoaren eta jarduera administratiboaren arteko identifikazioa gaindituz prozedurako emaitzak kontuan hartzeari esker;
- f) esparru administratiboa: erabakiak hartzeko elementu osagarritzat administrazioaren diskrezionalitatearen esparruan; eta
- g) esparru demokratikoa: ordezkaritza eskemaren gaindizte partziala, esfera publikoa zabalduz eta ordezkari, kudeatzaile eta herritarren arteko lankidetzaren bitartez.

Irekitze honen ondorio baliotsua erakundeek eta gizarteak, hots, bere interesak agertzen dituen eta aitortuak eta aseak izan daitezen prest dagoen gizarte aktiboak, elkar aintzat hartzea izango da.

2. Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako eta beronek ezarritako baldintzetan betiere, foru arau honetako 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuek aipagai dituzten pertsona edo erakundeek eskubidea izango dute Foru Aldundiaren barneko edozein erabakitze prozeduratan partaidetza prozesu bat gara dadin eskatzeko.

3. A tal efecto, se establecerán los medios técnicos adecuados, de carácter gratuito, en los archivos, bibliotecas, centros de comunicación, centros cívicos y culturales públicos, en las oficinas de información a la ciudadanía, o en cualquier otro lugar que se considere adecuado por su accesibilidad para la ciudadanía.

4. En el caso de procedimientos en cuyo seno se inserten instrumentos de participación deliberativa específicamente previstos en esta norma foral, el departamento de la Diputación Foral al que corresponda la competencia por razón de la materia tendrá, específicamente, la obligación de informar sobre el inicio del procedimiento al órgano competente en materia de participación ciudadana, a los efectos de garantizar la información a las entidades ciudadanas, todo ello sin perjuicio de la obligación general de información que le corresponda al departamento foral competente.

5. A fin de garantizar el derecho a la información, se asegurará que los sistemas de difusión lleguen por igual a mujeres y hombres. Igualmente se utilizará, en todo caso, un lenguaje no sexista en la redacción de la información difundida.

6. Con el fin de impulsar y facilitar la efectiva participación de las personas y de las entidades ciudadanas del Territorio Histórico, la Diputación Foral de Gipuzkoa utilizará de forma activa las tecnologías y plataformas de comunicación social, especialmente a través de la configuración de espacios interactivos en sus sedes electrónicas, portales o páginas web, así como mediante la promoción de sistemas de votación y encuesta de carácter electrónico, garantizando la transparencia y la mejor difusión de la información relativa a las actuaciones en el ámbito de la participación ciudadana y la comunicación entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y las personas y entidades interesadas.

7. En cualquier caso, en el uso de las tecnologías y redes de comunicación señaladas en el apartado anterior, la Diputación Foral de Gipuzkoa, deberá tener en cuenta la existencia de personas y colectivos sociales con dificultades para el acceso y la utilización de las mismas, por lo que deberá utilizar, simultáneamente, otros medios que garanticen la accesibilidad a la información por parte de esas personas y colectivos y, además, intervendrá activamente para tratar de diluir o reducir significativamente los efectos de esas limitaciones, fomentando y facilitando el uso de las tecnologías de la información y comunicación en el ámbito de aquellos colectivos sociales que tienen más dificultades en su utilización.

8. La Diputación Foral pondrá a disposición de la ciudadanía en su página web, la información sobre las actuaciones de interés general que puedan ser objeto de esta norma foral. Esta página web informará, con el máximo detalle posible, sobre la red asociativa local, y se impulsará en la página web un espacio donde se puedan presentar ideas, opiniones, sugerencias, foros de debate sobre procesos participativos en marcha y similares. En cualquier caso, la Diputación Foral garantizará la difusión de la información a la sociedad en general, no solamente a través del sitio web de participación, teniendo en cuenta las disposiciones contenidas en esta norma foral.

**Artículo 10.** *Derecho de petición para la realización de procesos de participación.*

1. Las personas o entidades a las que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 8 de esta norma foral podrán ejercer el derecho de petición ante los órganos de la Diputación Foral sobre cualquier asunto de su interés que sea de la competencia de aquella en los términos establecidos en el ordenamiento jurídico.

2. Específicamente, a los efectos previstos en esta norma foral, las personas o entidades a las que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 8 de esta norma foral podrán ejercer el derecho de petición para la realización de un proceso participativo en el seno de cualquier procedimiento de decisión de la Diputación Foral, en los términos establecidos en esta norma foral.



*11. artikulua. Ekimen eskubidea.*

1. Foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak zein tokiko erakundeek, nor bere eskumenen esparruan, herritarren partaidetzarako prozesuak hasi ahal izango dituzte, bai ofizioz, bai 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren pertsona fisikoek nahiz herritarren partaidetzarako erakundeek eskatuta.

2. Toki erakundeek ere ekimenerako ahalmena izango dute, foru arau honetan araututako partaidetza prozesuak irekitzea proposatzeko.

III. TITULUA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN TRESNAK

LEHEN KAPITULUA. DELIBERAZIOZKO PARTAIDETZA PROZESUAK

*12. artikulua. Deliberaziozko partaidetza prozesuen esparrua.*

1. Deliberaziozko partaidetza prozesuak dira politika publiko jakin bat erabakitzeko edo zehazteko prozedura batean dauden ekintza guztiak, hartu beharreko erabakiaren eta haren ezaugarrien gaineko, jarduera bat gauzatzeko moduaren gaineko edo, bestela, eremu horretan dauden beste aukeren gaineko eztabaida publiko bitartez garatuak. Erabaki edo politika jakin horretan interesa duten pertsonen edo herritarren erakundeek parte hartzen dute zuzenean prozesuan, foru arauak zehazten dituen modu eta terminoetan.

2. Foru arau honetan arautzen diren deliberaziozko partaidetza prozesuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan garrantzi edo eragin berezia duten politika publikoak zehazteko prozeduren barruan baliatu ahal izango dira, betiere Foru Aldundiaren eskumenetakoak badira lurraldeko gobernu organo exekutiboan denaldetik.

3. Politika publiko bat erabaki edo azaltzeko prozedura hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundiak garatu nahi den politika publikoaren oinarriko ezaugarriak aurretiaz ezartzen dituen erabakia hartu eta berehala egingo dira deliberaziozko partaidetza prozesuak.

4. Salbuespen gisa, prozeduraren hurrengo faseetan ere deliberaziozko partaidetza prozesuak egin ahal izango dira, proiektu edo politika publiko jakin batek, tramitazioan zehar, hasieran aurreikusi gabeko garrantzia bereganatu duenean, edo horren ezaugarriak nabarmen aldatu direnean. Horrelako kasuetan, deliberaziozko partaidetza prozesu bat egiteko ekimena berariaz onartu beharko du Partaidetzarako Foru Batzordeak. Foru Batzordeak ekimena ezetsiz gero, behar beste arrazoitu beharko du erabaki hori.

*13. artikulua. Deliberaziozko partaidetza prozesuen protokoloa.*

1. Deliberaziozko partaidetzak, kasu bakoitzean, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoaren iritziz gaiaren izaerarako eta ezaugarrietarako egokienak ematen duten forma eta ezaugarriak izango ditu, aurrez kontsulta eginda, betiere, bertan parte hartuko duten edo, bestela, partaidetza prozesuaren ekimena izan duten herritarren erakunde eta pertsonen.

2. Aurreko apartatuan esandakoaren ondorioetarako, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak deliberaziozko partaidetza prozesuaren protokolo bat onartuko du prozesu jakin bakoitzerako, nolahi ere genero berdintasunaren printzipioa beteko duena prozesu protokolizatuaren pauso bakoitzean.

*Artículo 11. Derecho de iniciativa.*

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa o las entidades locales, en el marco de sus respectivas competencias, podrán iniciar los procesos de participación ciudadana, bien de oficio, bien a instancia de las personas físicas o entidades de participación ciudadana a que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 8, a los efectos previstos en la presente norma foral.

2. Las entidades locales tendrán también capacidad de iniciativa para proponer la apertura de los procesos participativos regulados en esta norma foral.

TÍTULO III

DE LOS INSTRUMENTOS DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

CAPÍTULO PRIMERO. PROCESOS DE DELIBERACIÓN PARTICIPATIVA

*Artículo 12. Ámbito de los procesos de deliberación participativa.*

1. Son procesos de deliberación participativa el conjunto de actos que se integran en un procedimiento de decisión o determinación de una concreta política pública, cuyo contenido consiste en un debate público sobre la decisión a adoptar y sus características o sobre la forma de gestionar una actuación determinada, así como, en su caso, sobre las alternativas existentes en este ámbito y en el que participan directamente personas o entidades ciudadanas interesadas en la decisión pública o política a adoptar, en las formas y términos establecidos en esta norma foral.

2. Los procesos de deliberación participativa que se regulan en esta norma foral podrán realizarse en el seno de procedimientos relativos a la determinación de las políticas públicas que tengan una especial relevancia o impacto en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y que formen parte de las competencias que corresponden a la Diputación Foral en su condición de órgano ejecutivo de gobierno del mismo.

3. Los procesos de deliberación participativa se realizarán inmediatamente después del inicio del procedimiento de decisión o de formulación de una política pública y adopción por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa del acuerdo que establezca, de forma preliminar, las características básicas de la política pública que se pretende desarrollar.

4. De forma excepcional, también podrán realizarse procesos de deliberación participativa en fases sucesivas del procedimiento cuando el proyecto o política pública a adoptar haya adquirido durante su tramitación una trascendencia imprevista en el momento inicial o cuando las características del mismo se hayan transformado de forma sustancial. En estos supuestos, la iniciativa para realizar un proceso de deliberación participativa deberá ser expresamente aceptada por la Comisión Foral para la Participación Ciudadana. La desestimación de la iniciativa por parte de la Comisión Foral deberá estar motivada.

*Artículo 13. El Protocolo de procesos de deliberación participativa.*

1. La deliberación participativa adoptará, en cada caso, las formas y características que, a juicio del órgano competente en materia de participación ciudadana, parezcan más adecuadas a la naturaleza o peculiaridades del asunto, previa consulta a las entidades ciudadanas o a las personas que vayan a participar en el mismo o, en su caso, que hayan ejercido la iniciativa para su realización.

2. A los efectos señalados en el apartado anterior, el órgano competente en materia de participación ciudadana aprobará para cada proceso concreto un Protocolo del proceso de deliberación participativa, que garantizará en todo caso el principio de igualdad de género en cada paso del proceso protocolizado.

Protokoloa, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak egingo duena, dokumentu administratiboa da, eta horretan zehazten dira burutuko den partaidetza prozesuaren izaera eta ezaugarriak, egitura eta helburuak, erabiliko diren teknikak, arau izango dituen erregelak, ondorioak lantzeko prozedura, eztabaidagai izango diren gaiak eta eztabaidatik kanpo geratuko direnak. Halaber, bermatu egingo da aintzat hartzea gizonen eta emakumeen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa, foru arau honetako 1.1 artikulua 2. paragrafoak ezartzen dituen terminoetan eztabaida prozesuaren gehiezeko iraupena, prozesuaren zuzendaritzaren arduraren izango duen pertsona eta herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak beharrezko irizitako bestelako guztiak.

3. Deliberaziozko partaidetzak eskatuko du parte hartu nahia duten herritarren erakundeek halaberharrez prozesuan inskribatzea. Prozesu horretan, genero berdintasuna sustatzeko ekintzak garatzen dituzten edo genero berdintasuna eginkizuntzat duten erakundeen partaidetza bermatuko da.

4. Herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak izena emateko epe bat gaituko du, gutxienez 30 egun naturalekoa, foru arau honen 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan zehazten diren eta partaidetza prozesuan esku hartzeko interesa duten erakundeentzat.

5. Deliberaziozko partaidetza prozesuetan, orobat, parte hartu ahal izango dute prozesuan interes berezia dutela egiaztatzen duten gizabanakoek. Partaidetza prozesu bat abian jarri aurretik, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak izen-emate epe bat gaituko du prozeduran interesa duten biztanleei zuzendurik, pertsona horien ordezkari gisa jardungo duen pertsona kopurua finkatuko du eta, protokoloak zehazten duen prozedurarekin bat, ordezkari horiek izendatuko ditu.

6. Deliberaziozko partaidetza prozesuaren garapenean, bai herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak bai prozesuan parte hartzen duten pertsonen proposatu ahal izango dute partaidetzako deliberaziozko prozesura aztergai adituak gehitzea, genero berdintasuneko espezialistak barne, prozesuak euskarri tekniko egokia izan dezan. Deliberaziozko partaidetza prozesuaren arduraduna den pertsonak hartuko du erabakia, eta erabakia arrazoitu egin beharko du.

*14. artikulua. Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien ekimena deliberaziozko partaidetza prozesuetan.*

1. Foru Aldundiak ekimenerako ahalmena du deliberaziozko partaidetza prozesuak egingo diren gai edo prozedurak finkatzeko.

2. Era berean Batzar Nagusiek, beren ekimenez, erabaki ahal izango dute Foru Aldundiak partaidetzako deliberaziozko prozesuak egitea.

*15. artikulua. Deliberaziozko partaidetza prozesuak egiteko herritarren ekimena.*

1. Foru arau honetako 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuek aipagai dituzten pertsonen edo herritarren erakundeek ekimen eskubidea izango dute deliberaziozko partaidetza prozedurak egiteko Foru Aldundiaren departamentuetako edozein tramitatzeko erabakitzeko prozeduretan. Ekimen eskubidea modu eraginkorrean gauzatzeko, Foru Aldundiak publikitatearen bermatu behar du, oro har eta eskumeneko departamentuaren eta herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoaren webguneetan, herritarren partaidetzaren xede izan daitezkeen prozedurak hasten diren une beretik.

2. Deliberaziozko partaidetza prozedurak egiteko ekimen eskubidea izango dute, halaber, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen, baldin eta Foru Aldundiak garatu behar duen politikaren edo hartu behar duen erabakiaren era-

El Protocolo, cuya elaboración corresponde al órgano competente en materia de participación ciudadana, es el documento administrativo en el que se precisan la naturaleza y características del proceso participativo concreto que se vaya a realizar, su estructura y objetivos, las técnicas que vayan a utilizarse, las reglas que lo regirán, el procedimiento de elaboración de conclusiones, las cuestiones que serán objeto de deliberación y las excluidas de la misma. Así mismo, se garantizará la toma en consideración del principio de representación equilibrada de mujeres y hombres establecidos en el párrafo 2.º del artículo 1.1. de esta norma foral, la duración temporal máxima del proceso de deliberación y la persona responsable de la dirección del proceso y todas aquellas que considere necesarias el órgano competente en materia de participación ciudadana.

3. La deliberación participativa exigirá, necesariamente, la inscripción en el proceso por parte de las entidades ciudadanas que así lo deseen. En este proceso, se garantizará la participación de entidades que desarrollen acciones para promover la igualdad de género o tengan la misma como misión.

4. El órgano competente en materia de participación ciudadana, habilitará un periodo de inscripción, de 30 días naturales como mínimo, para las entidades señaladas en los apartados 1 y 2 del artículo 8 de esta norma foral que estén interesadas en intervenir en el proceso participativo.

5. En los procesos de deliberación participativa podrán también intervenir personas individuales que acrediten ostentar especial interés en el procedimiento. Antes de iniciarse un proceso participativo, el órgano competente en materia de participación ciudadana habilitará un periodo de inscripción de las personas residentes interesadas en el procedimiento, establecerá el número de personas que actuarán en representación de éstas y procederá a su designación de acuerdo con el procedimiento que determine en el protocolo.

6. Durante el desarrollo del proceso de deliberación participativa, tanto el órgano competente en materia de participación ciudadana como las personas que participan en el proceso podrán proponer la incorporación al mismo de personas expertas en la materia objeto de deliberación, incluyendo a especialistas en materia de igualdad de género, a los efectos de contar con el adecuado soporte técnico. La decisión sobre ello quedará en manos de la persona responsable del proceso de deliberación participativa, quien deberá motivar su decisión.

*Artículo 14. Iniciativa de la Diputación Foral y de las Juntas Generales en los procesos de deliberación participativa.*

1. La Diputación Foral tiene capacidad de iniciativa para establecer los asuntos o procedimientos en los que se realizarán procesos de deliberación participativa.

2. Asimismo, las Juntas Generales, por propia iniciativa, podrán acordar la realización por parte de la Diputación Foral de procesos de deliberación participativa.

*Artículo 15. Iniciativa ciudadana para la realización de procesos de deliberación participativa.*

1. Las entidades ciudadanas a que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 8 de esta norma foral gozarán del derecho de iniciativa para la realización de un proceso de deliberación participativa en los procedimientos de decisión cuya tramitación se haya iniciado por cualquiera de los departamentos de la Diputación Foral. A los efectos de que el derecho de iniciativa pueda ejercitarse de forma efectiva, la Diputación Foral debe garantizar la publicidad, de forma general, así como en los sitios web del departamento competente y del órgano competente en materia de participación ciudadana, desde el momento de inicio de los procedimientos que puedan ser objeto de un proceso de participación ciudadana.

2. Tendrán, asimismo, derecho de iniciativa para la realización de procesos de deliberación participativa, las personas residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa que se considere afectadas por la política o decisión a adoptar por la Diputa-

ginpean daudela uste badute, betiere Lurralde Historikoko edo bereziki politika edo erabaki horren eraginpean dagoen udalerrri edo eskualdean bizi diren adinez nagusietatik gutxienez ehuneko bi ordezkatzeko badituzte. Ondorio horietarako, prozedurak eragingo dion lurralde eremua ezarriko du Foru Aldundiak. Partaidetza prozesu baten ekimena baliatzen dutenak bat ez bada tozu foru organoak egin duen lurralde eremu ukituaren zehaztapenarekin, aditzera emango diote Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari, eta honexek erabaki beharko du, arrazoituz beti, alderdi hori.

3. Deliberaziozko partaidetza prozesu baten ekimena gizabanakoek gauzatzeko, haren berri eman beharko zaio partaidetzaren arloan eskumena duen organoari, gutxienez proposatzen den deliberaziozko partaidetza prozesuaren helburu den gaia labur azalduz eta komunikatzeko bide bat adieraziz; ahal dela, bide telematikoa erabiliko da.

4. Erregelamenduz eta gehienez ere foru-arau hau onartu eta bost hilabeteko epean zehaztuko da zein betekizun formal bete behar dituzten herritarren ekimenek deliberaziozko partaidetza prozesuak egiteko, eta betekizun horietan zehaztuko da, halaber, ekimen horiek genero rolen eta genero estereotipoen jarraipena ez ekartzea.

5. Aintzat hartuta ekimen eskubidearen bidez prozesuak abiarazi nahi dituzten pertsona banakoek desabantaila dutela administrazioak edo elkarteek abian jarritako prozesuekin alderatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, partaidetzan eskumena duen organoaren bidez edo dagokionean gaian eskumena duen organoaren bidez, bermatuko du prozesuaren publikitatea eta sustapena, banakakoen partaidetza erraztearren.

6. Foru Aldundiak, partaidetzarako Foru Batzordeak proposatuta, gehienez ere hilabeteko epean hartuko du deliberaziozko partaidetzarako tresna erabiltzeko ekimenaren gaineko erabakia. Proposamena ezetsiz gero, erabaki arrazoitua beharko da, ekimenaren gai izandako deliberaziozko partaidetzarako tresna erabiltzeari egoki ez irizteko arrazoiak zehaztuta.

*16. artikulua. Deliberaziozko partaidetza prozesuak egiteko toki ekimena.*

1. Deliberaziozko partaidetza prozesuaren ekimena balia dezakete, orobat, Lurralde Historikoko foru erakundeek garatzeko asmoa duten politikaren edo hartzeko asmoa duten erabakiaren eraginpean dauden toki erakundeek, dela bakarka, dela beste toki erakunde batzuekin batera.

2. Horretarako erabakia eskumena duen organoak hartu beharko du, legearekin eta toki erakundearen erregelamendu organikoarekin bat.

3. Ekimenerako akordioak adierazi egin beharko ditu ekimena baliatzen duen toki erakundea bereziki ukitua izateko arrazoiak eta deliberaziozko partaidetza prozesuak izan beharko dituen ezaugarriak, eta emakume eta gizonek era orekatsuan eta berdintasun errealean eta eraginkorra izateko baldintzetan parte hartuko dutela bermatuko du.

*17. artikulua. Deliberaziozko partaidetza prozesuaren garapena eta ondorioak.*

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak finkatuko du zein unetan irekitzen den deliberaziozko partaidetza prozesua.

2. Deliberaziozko partaidetza prozesua irekitzeko unea zehaztu ondoren, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak gehienez hilabeteko epea izango du partaidetza prozesuko protokoloa onartzeko.

3. Deliberaziozko partaidetza prozesuaren protokoloa onartu eta gero, protokoloaren testu osoa argitaratu behar da partaidetzan eskumena duen organoaren egoitza elektroni-

ción Foral y que representen, al menos, el dos por ciento de las personas residentes mayores de edad del conjunto del Territorio Histórico o del municipio o comarca que resulte afectado de forma especialmente relevante por aquélla. A estos efectos, la Diputación Foral establecerá el ámbito territorial de afectación del mismo. En el supuesto de que quienes ejerzan la iniciativa de un proceso de deliberación participativa discrepen sobre la determinación del ámbito territorial de afectación realizado por el órgano foral lo manifestarán a la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, a la que corresponderá resolver la cuestión de forma motivada.

3. El ejercicio de la iniciativa para la realización de un proceso de deliberación participativa por personas individuales deberá notificarse al órgano competente en materia de participación, incluyendo al menos una breve descripción del objeto del proceso propuesto y un cauce de comunicación que preferentemente será mediante procedimiento telemático.

4. Reglamentariamente, y en un plazo no mayor de 5 meses desde la aprobación de la presente Norma Foral, se especificarán los requisitos que deban de cumplir las iniciativas ciudadanas para la realización de procesos de deliberación participativa, y en ellos se especificará que dichas iniciativas no supongan una perpetuación del rol de género ni de los estereotipos de género.

5. Dada la diferente posición en que se encuentran las personas físicas a efectos de iniciar procesos de participación, frente a las instituciones o entidades que son titulares del derecho de iniciativa, la Diputación Foral, a través del órgano competente en materia de participación o, en su caso, de quien sea competente en la materia, garantizará la publicidad y promoción de dichos procesos, a los efectos de facilitar la participación individual.

6. A propuesta de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, la Diputación Foral resolverá, en el plazo máximo de un mes, sobre la iniciativa de utilización del proceso de deliberación participativa. La resolución, en el caso de desestimación de la propuesta, deberá ser motivada, especificando las razones por las que no se considere oportuna la utilización del proceso de deliberación participativa objeto de la iniciativa.

*Artículo 16. Iniciativa local para la realización de procesos de deliberación participativa.*

1. También podrán ejercer la iniciativa para la realización de procesos de deliberación participativa los entes locales afectados por la política o decisión a adoptar por las instituciones forales del Territorio Histórico, tanto de forma individual como conjuntamente con otra u otras entidades locales.

2. El acuerdo deberá ser adoptado por el órgano competente de acuerdo con la ley y el reglamento orgánico de la entidad local.

3. El acuerdo sobre el ejercicio de la iniciativa deberá indicar los motivos de la especial afectación al ente local que ejerce la iniciativa y las características que debiera adoptar el proceso de deliberación participativa, garantizando la participación equilibrada de mujeres y hombres en condiciones de igualdad, de manera real y efectiva.

*Artículo 17. Desarrollo del proceso de deliberación participativa y efectos.*

1. La Comisión Foral para la Participación Ciudadana determinará el momento en el que se procede a la apertura del proceso de deliberación participativa.

2. Determinado el momento de apertura del proceso de deliberación participativa, el órgano competente en materia de participación ciudadana procederá, en el plazo máximo de un mes, a la aprobación del protocolo del proceso participativo.

3. Una vez aprobado el Protocolo del proceso de deliberación participativa, su texto íntegro se hará público en la sede electrónica, portal o página web del órgano competente en ma-

koan, atarian edo web orrian, eta adierazi behar da prozesuaren hasiera data, eta ireki behar da prozesuan parte hartu nahi duten pertsonen –banaka nahiz erakundeen ordezkartza– izena emateko ezarritako gutxieneko epea. Gipuzkoako Foru Aldundiak beste edozein tresna erabili ahal izango du diskriminazio teknologiko eza bermatzeko eta eskuragarritasun printzipioa bermatzeko egokitzat jotzen badu.

4. Politika publiko jakin bati loturik deliberaziozko partaidetza prozesu bat irekitzeak eten egingo du hartu behar den azken erabakia baldintza dezakeen jarduera oro, tramiteko ekintzak izan ezik.

5. Herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak deliberaziozko partaidetza prozesua abiatzeari eta gartzeari buruzko informazioa ahalik eta gehien zabaltzea bertutuko du, herritarren partaidetzari ahalik eta mailarik handieneko sustapena ematera begira. Edonola ere, partaidetza prozesuaren protokoloa onartzeko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratuko da, hizkuntza inklusiboz idatziko da emakumeak eta gizonak ikusgarri egiteko moduan eta genero estereotipoak birsortzen dituzten irudiak saihesteko, eta hizkuntza arrunt eta ulertzen erraza erabiliko du.

*18. artikulua. Deliberaziozko partaidetza prozesuaren amaiera eta ondorioak.*

1. Deliberaziozko partaidetza prozesua amaiturik, horren ardura duen pertsonak prozesuko aktak igorriko dizkio herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoari, hala egokitzu gero lortu diren konklusioak ere adierazita.

2. Jasotako dokumentazioan oinarriturik, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak txosten bat egingo du partaidetza prozesuari buruz, eztabaidatutako gaien inguruko proposamenak bilduz horretan, eta pertsonen eta erakundeek egindako proposamen kopurua eta motak zehaztuz halaber, datuak sexuka eta erakunde motaka bereizita. Txosten hori Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari eta eskumena duen departamentuari emango zaie. Herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak txostena argitaratuko du, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez. Txostenaren argitalpena Herritarren Partaidetzarako Erakundearen Foru Erregistroan inskribatutako herritarren erakundeak jakinaraziko zaie, baita parte hartu duten edo deliberaziozko partaidetza prozesuan parte hartzeko interesa azaldu duten pertsona eta erakunde guztiei ere, eta, beti, Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

3. Hiru hilabeteko epean Foru Aldundiak, eta gaia dela eta eskumena dagokion departamentuak txostena eman ondoren, erabaki egingo du deliberaziozko partaidetza prozesuak ekarritako ondorioek nola eragingo dioten hartu beharreko erabakiari edo politikari. Zehazki, Foru Aldundiak zehaztu egin beharko du ekarritako ondorioek proiektuari uko egitea, proiektu ordezko bat aurkeztea edo proiektua aldatzea dakarten edo, aitzitik, proiektua hasieran proposatu zen baldintza berberetan aurrera eramateko asmoa duen. Proiektua aldatzea erabakitzen badu, zehatz adierazi beharko du zein aldaketa erantsiko dizkion. Foru Aldundiak hartzen duen erabakiak arrazoituta egon beharko du, eta deliberaziozko partaidetza prozesuaren ondorioek ezarritako bidetik jotzen ez badu, horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

4. Foru Aldundiak deliberaziozko partaidetzaren faseari amaiera emanez hartzen duen erabakiak prozeduraren tramitazioak aurrera segitzea ahalbidetzen du.

teria de participación, estableciendo la fecha de inicio del proceso, y abriendo el periodo mínimo establecido para la inscripción de todas aquellas personas individuales o en representación de entidades, que quieran participar en el proceso. La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá utilizar cualesquiera otros instrumentos que considere a fin de garantizar los principios de accesibilidad y no discriminación tecnológica.

4. La apertura de un proceso de deliberación participativa en relación con una determinada política pública suspenderá cualquier actuación que condicione la decisión final a adoptar, salvo los actos de trámite.

5. El órgano competente en materia de participación ciudadana garantizará la máxima difusión de la información sobre la apertura y desarrollo del proceso de deliberación participativa, a los efectos de promover la participación ciudadana con la máxima extensión posible. En todo caso, la resolución de aprobación del protocolo del proceso participativo se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y estará redactado con un lenguaje inclusivo, que visibilice tanto a mujeres como a hombres y evite la utilización de imágenes que reproduzcan estereotipos de género y utilizará un lenguaje sencillo y de fácil comprensión.

*Artículo 18. Conclusión del proceso de deliberación participativa y efectos.*

1. Concluido el proceso de deliberación participativa, la persona responsable de la dirección del proceso remitirá al órgano competente en materia de participación ciudadana las actas del proceso con especificación, en su caso, de las conclusiones alcanzadas.

2. Con base en la documentación recibida, el órgano competente en materia de participación ciudadana elaborará un informe sobre el proceso participativo que contendrá las propuestas relativas a los temas debatidos, recogiendo el número y tipo de propuestas realizadas por personas y entidades, desagregando los datos por sexo y tipo de entidad. Dicho informe se trasladará a la Comisión Foral para la Participación Ciudadana y al departamento competente. El órgano competente en materia de participación ciudadana publicará el informe, dándole la máxima difusión a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa. La publicación del informe será notificada a las entidades ciudadanas inscritas en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación, así como a todas las personas y entidades que hayan participado o mostraron interés en participar en el proceso de deliberación participativa y, en todo caso, a las Juntas Generales de Gipuzkoa.

3. En el plazo de tres meses, la Diputación Foral, previo informe del departamento competente por razón de la materia, resolverá sobre la forma en que las conclusiones aportadas en el proceso de deliberación participativa afectan a la decisión o política a adoptar. Específicamente, la Diputación Foral deberá determinar si las conclusiones aportadas suponen la renuncia al proyecto, la presentación de un proyecto alternativo, su modificación, o si, por el contrario, pretende continuar con el proyecto en los mismos términos en que fue propuesto inicialmente. En el caso de que acuerde modificar el proyecto, deberá señalar de forma precisa las modificaciones que se incorporarán al mismo. La decisión de la Diputación Foral deberá ser motivada, indicando, en caso de que acuerde no seguir las conclusiones del proceso de deliberación participativa, las razones en que se sustenta.

4. El acuerdo de la Diputación Foral por la que se pone fin a la fase de deliberación participativa permite continuar con la tramitación del procedimiento.



## BIGARREN KAPITULUA. HERRI KONTSULTAK

### 19. artikulua. Herri kontsulten edukia.

1. Herri galdeketak dira Foru Aldundiak hartu beharreko erabaki publiko edo politiko jakin baten inguruan herritarrek duten nahia ezagutzeko prozedurak.

2. Foru Aldundiak, indarrean dagoen legediaren barnean eta foru eskumenen esparruan, herri kontsultak egin ahal izango ditu hartu beharreko erabakiren edo politikaren baten gainean Lurralde Historikoko herritarren, guztien edo herritar talderen baten, iritzia zein den jakiteari egoki irizten dion kasuetan.

3. Foru arau honetan araututako herri kontsultak modalitate guztietakoak izan daitezke, erreferenduma izan ezik; beraz, ez dira izango hauteskunde-prozesuetako berezko betebeharrak eta bermeekin gairen bati buruzko iritzia eman dezan hautesleriari zuzendutako deialdi formal bat.

4. Herri kontsultak egiteko honako modalitate hauetako bat garatu ahal izango da:

a) Partaidetza bidezko kontsulta. Biztanleen zati edo talde jakin baten iritzia jakiteko egingo da, gaia interes publikokoa denean, zuzenean eragiten dien eta haiei soilik eragiten dien gaia denean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa denean.

b) Demoskopia prozedurak. Egoeraren arabera aukeratu da prozedura demoskopiko egokiena gaiaren izaera edo ezaugarrietarako, egoiliarren partaidetza ahalik eta gardenena izan dadin kasuan kasuko gaiari buruz duten iritzia emateko.

c) Entzunaldi publikoak. Kontsultarako tresnak dira. Ahozko prozedura publiko baten bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak bidea emango die pertsonari, erakundeei, elkartei eta eragile sozialei eragiten dieten gai bati buruzko erabaki bat hartu aurretik entzunak izan daitezten, politika publiko baten eraginpean daudenean zuzenean edo lotura dutenean.

d) Herritarren panelak. Gipuzkoako Foru Aldundiak sortuko ditu interes publikoko edozein gaiei buruz herritarrek eginko galderei erantzuteko, batik bat etorkizunari buruz herritarrek dituzten ustei buruz.

5. Herri kontsultak planifikatzerakoan, neurriak jorratuko dira emakume eta gizonen partaidetza orekatua bermatzeko, benetan eta modu eraginkorrean, berdintasun baldintzetan.

### 20. artikulua. Herri kontsultak egiteko ekimena.

1. Foru arau honetan araututako herri kontsultak Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren ekimenez egin ahal izango dira.

2. Orobat ekimen eskubidea izango dute, foru arau honetan aurreikusten diren herri kontsultak egiteko, 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan zehazten diren herritarren erakundeek. Ekimena idazki batean formalizatu beharko da; horretan kontsultaren gaia adierazi beharko da, hartuko duen lurralde eremuarekin eta proposamengileen iritziz gaiaren zertzeladetarako egokiena den kontsulta formarekin batera.

3. Era berean, biztanleek ere ahalmena izango dute, maila indibidualean, foru arau honetan aurreikusten diren herri kontsultak egiteko ekimenerako, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osoko edo, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatu behar duen politikak edo hartu behar duen erabakiak bereziki eragiten dion udalerrri edo eskualde jakin bateko adinez nagusiko biztanleetatik gutxienez ehuneko bi ordezkatzeko badituzte.

## CAPÍTULO SEGUNDO. DE LAS CONSULTAS POPULARES

### Artículo 19. Contenido de las consultas populares.

1. Son consultas populares los procedimientos por los que se trata de conocer la voluntad de la ciudadanía en relación con una concreta decisión pública o política a adoptar por la Diputación Foral.

2. La Diputación Foral, en el marco de la legislación vigente y en el ámbito de las competencias forales, podrá realizar consultas populares en los supuestos en que considere oportuno conocer la opinión de la ciudadanía del Territorio Histórico, en su conjunto o de forma limitada a alguna parte del mismo, sobre alguna decisión pública o política a adoptar.

3. Las consultas populares reguladas en esta norma foral se configurarán en cualquier modalidad con la salvedad del referéndum, por lo que no podrán consistir en la convocatoria formal al cuerpo electoral para que se pronuncie sobre una determinada cuestión con las formalidades y garantías propias de los procesos electorales.

4. Las consultas populares podrán realizarse mediante las siguientes modalidades:

a) Consultas participativas, realizadas con el objetivo de conocer la opinión de un determinado sector o colectivo de la población sobre asuntos de interés público que le afecten de forma directa y exclusiva y que sean competencia de la Diputación Foral.

b) Procedimientos demoscópicos que, en función de cada situación, se seleccionarán los más adecuados a la naturaleza o características del asunto objeto de la consulta, con el fin de materializar, de la forma lo más transparente posible, la participación de las personas residentes a través de la manifestación de su opinión sobre la cuestión de que se trate.

c) Audiencias públicas, entendidas como instrumentos de consulta en los que, mediante un procedimiento oral y público, la Diputación Foral de Gipuzkoa, posibilitan a las personas, entidades, organizaciones y agentes sociales relacionados o directamente afectados por una política pública ser escuchados antes de adoptar una decisión sobre el asunto que les afecta.

d) Paneles ciudadanos, creados por la Diputación Foral de Gipuzkoa, con la finalidad de responder a las consultas planteadas por esta sobre cualquier asunto de interés público y, en especial, sobre las expectativas de futuro de la ciudadanía.

5. En la planificación de las consultas populares se desarrollarán las medidas necesarias para garantizar la participación equilibrada de mujeres y hombres de forma real y efectiva en condiciones de igualdad.

### Artículo 20. Iniciativa para la realización de consultas populares.

1. Las consultas populares reguladas en esta norma foral podrán realizarse a iniciativa de las Juntas Generales y de la Diputación Foral.

2. Tendrán, asimismo, derecho de iniciativa para la realización de las consultas populares previstas en esta norma foral las entidades ciudadanas señaladas en los apartados 1 y 2 del artículo 8 de la misma. La iniciativa deberá formalizarse a través de escrito en el que se indique el asunto sobre el que haya de versar la consulta, su ámbito territorial, así como la forma de consulta más apropiada a las circunstancias del asunto a juicio de las personas proponentes.

3. Igualmente, tendrán derecho de iniciativa para la realización de las consultas populares previstas en esta norma foral las personas residentes, individualmente, siempre que representen, al menos, el dos por ciento de las personas residentes mayores de edad del conjunto del Territorio Histórico de Gipuzkoa o de un municipio o comarca determinada cuando resulte afectado de forma especialmente relevante por la política o decisión a adoptar por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. Herri kontsultak egiteko ekimena baliatu ahal izango dute, era berean, Foru Aldundiak garatu nahi duen politikak edo hartu nahi duen erabakiak eragiten dien toki erakundeek, Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiz. Ekimena gauzatzeko beren akordioan adierazi beharko dute zein arrazoitan oinarritzen duten toki erakundearen gaineko eragin berezi hori, baita herri kontsultak zein ezaugarri izan behar dituen ere.

5. Aintzat hartuta ekimen eskubidearen bidez herri kontsultak egiteko prozesuak abiarazi nahi dituzten pertsona bana-koek administrazioak edo elkarteek hasitako prozesuekin alderatuta duten desabantaila, Gipuzkoako Foru Aldundiak, egoitza elektronikoa, gune bat gaituko du hasiera batean artikuluko honetako 3. puntuari ezarritako gutxienezko babesa ez duten ekimenak jasotzeko eta jakitera emateko, eta babesa jasotzeko sistema bat ezarriko du, argitaratzen denetik gutxienez bi hilabeteko epean babesa jasotzeko eta ekimenak behar duen babesa lortzeko aukera izateko.

6. Herri kontsultak egiteko ekimenaren egikaritzea erregelamendu bidez zehaztuko da, foru arau hau onartu eta gehienez ere lau hilabeteren barruan.

**21. artikulua. Herri kontsultak egiteko ekimenari buruzko erabakia.**

1. Herri kontsultak egiteko ekimena foru arau honetako 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aurreikusten diren biztanleei edo herritarren erakundeetara badagokie, Foru Aldundiak hiru hilabeteko epean ebatziko du ekimenaren gainean. Akordioa arrazoitua izango da eta, ekimenari ezezkoa ematen bazaio, zehaztu beharko da Foru Aldundiak zergatik ez duen egoki ikusten herri kontsulta egitea. Zergati horien artean emakumeen eta gizonen berdintasunari eraso egitea egon daiteke.

2. Herritarren erakundeek, biztanleek edo toki erakundeek herri kontsultak egiteko ekimenaren gainean Foru Aldundiak hartzen duen erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratuko da, Foru Aldundiak aipatutako erabakia hartzen duenetik hasi eta 30 eguneko epean, eta gutxienez kontsulta hasteko aurreikusitako data baino 45 egun lehenago.

3. Edonola ere, Foru Aldundiak herri kontsulta bat egitea onartzeko hartzen duen erabakia adierazi egingo ditu kontsultaren xedea, erabiliko den prozedura teknikoa, dagokion lurralde eremua, kontsulta egingo den unea eta egingo den kontsulta mota dela eta garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako ezaugarri teknikoak edo beste mota batzuetakoak.

4. Foru Aldundiak hartu beharreko erabaki edo politika bati buruzko herri kontsulta egitea onartzen duen erabakia azken erabakia baldintzatu dezakeen tramite oro, herri kontsultaren prozesua amaitzen den arte.

5. Foru Aldundiak herri kontsulta bat egin ahal izango du foru arau honetan aurreikusitako deliberaziozko partaidetza prozesu baten amaiera gisa.

**22. artikulua. Herri kontsulten emaitzak argitaratzea.**

Foru arau honetan aurreikusten diren herri kontsulta bat egin dakoan, lortzen diren emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratu beharko dira gehienez ere 30 eguneko epean, kontsulta prozesua bukatzen denetik kontatzen hasita. Argitalpenean hura identifikatzen duten datu tekniko guztiak zehaztuko dira, emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunaren ikuspegia aplikatuko da eta une oro hizkuntza sexista erabiltzea saihestuko da.

4. También podrán ejercer la iniciativa para la realización de consultas populares los entes locales afectados por la política o decisión a adoptar por la Diputación Foral, mediante acuerdo del pleno de su ayuntamiento, debiendo indicar en su acuerdo sobre el ejercicio de la iniciativa los motivos de su especial afectación al ente local, así como las características que debiera adoptar la consulta popular.

5. Habida cuenta de la desventaja que sufren las personas que a título individual deseen lanzar procesos para la realización de consultas populares través del Derecho de Iniciativa, frente a los procesos iniciados por la propia Administración o por entes asociativos, la Diputación Foral de Gipuzkoa habilitará, en su sede electrónica, un espacio para recoger y publicar todas aquellas iniciativas propuestas por la ciudadanía que inicialmente no cuenten con el apoyo mínimo establecido en el punto 3 del presente artículo, estableciendo un sistema para la recogida de apoyos durante un periodo mínimo de dos meses desde su publicación, con el objeto de que la citada iniciativa pueda alcanzar los apoyos necesarios.

6. Reglamentariamente, y en un plazo no mayor de cuatro meses desde la aprobación de la presente norma foral, se determinará el ejercicio de la iniciativa para la realización de consultas populares.

**Artículo 21. Acuerdo sobre la iniciativa para la realización de consultas populares.**

1. En los supuestos en que la iniciativa para la realización de consultas populares corresponda a personas residentes o entidades ciudadanas previstas en los apartados 1 y 2 del artículo 8 de esta norma foral o a entes locales, la Diputación Foral resolverá sobre la iniciativa en el plazo de tres meses. El acuerdo deberá ser motivado indicando, en caso de rechazo de la iniciativa, las razones por las que la Diputación Foral no considera oportuna la realización de la consulta popular, entre las cuales puede estar el que atente contra la igualdad de mujeres y hombres.

2. El acuerdo de la Diputación Foral relativo a la iniciativa para la realización de consultas populares ejercida por entidades ciudadanas, por personas residentes o por entidades locales será objeto de publicidad en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el plazo de 30 días desde que el citado acuerdo haya sido acordado por la Diputación Foral, y al menos con 45 días de antelación a la fecha prevista para el inicio de la consulta.

3. En cualquier caso, el acuerdo de la Diputación Foral por el que se aprueba la realización de una consulta popular indicará el objeto de la consulta, el procedimiento técnico que se vaya a utilizar, el ámbito territorial afectado, el momento temporal de realización, así como otras características, técnicas o de otro tipo, que sean relevantes por el tipo de consulta a realizar.

4. El acuerdo por el que se aprueba la realización de una consulta popular sobre una decisión o política a adoptar por la Diputación Foral suspenderá la realización de cualquier otro trámite que condicione la decisión final a adoptar hasta la finalización del proceso de consulta popular.

5. La Diputación Foral podrá realizar una consulta popular como conclusión de un proceso de deliberación participativa previsto en esta norma foral.

**Artículo 22. Publicación de los resultados de las consultas populares.**

Realizada una consulta popular prevista en esta norma foral, se deberá proceder a la publicación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el plazo máximo de 30 días, contados desde la finalización del proceso de consulta, de los resultados que se hayan obtenido en la consulta, con especificación de todos los datos técnicos que la identifiquen, aplicando la perspectiva de igualdad de género entre mujeres y hombres, y evitando en todo momento el empleo de un lenguaje sexista.

**23. artikulua. Herri kontsulten ondorioak.**

1. Herri kontsulta baten emaitzak zehaztu ondoren, eta gaia dela eta eskumena duen departamentuaren txostenaren ondotik halaber, Foru Aldundiak, hiru hilabeteko epean, akordio baten bidez argitu beharko du lortutako emaitzek nola eragingo dioten hartu beharreko erabakiari edo politikari. Zehazki, Foru Aldundiak ezarri egin beharko du herri kontsultaren bidez lortutako emaitzek proiektuari uko egitea, proiektu ordezko bat aurkeztea edo proiektua aldatzea dakarten edo, aitzitik, proiektua proposatu zen baldintza berberetan aurrera eramateko asmoa duen. Proiektua aldatzea erabakitzen badu, zehatz adierazi beharko du zein aldaketa erantsiko dizkion.

2. Foru Aldundiak hartzen duen akordioak arrazoituta egon beharko du, eta ez bazaie herri kontsultaren emaitzei egokitzen, horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

3. Foru Aldundiaren erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratu beharko da, Foru Aldundiak erabakia hartzen duenetik 30 eguneko epean.

4. Foru Aldundiak kontsultaren faseari amaiera emanez hartzen duen akordioak prozeduraren tramitazioak aurrera segitzea ahalbidetzen du.

**HIRUGARREN KAPITULUA. FORU ARAUEN AURREPROIEKTUAK PRESTATZEKO PARTAIDETZA**

**24. artikulua. Herritarren partaidetza foru arauen aurreproiektuen prestakuntzan.**

1. Foru arauen aurreproiektuak prestatzeko partaidetza prozedurak dira Foru Aldundiaren arau ekintza baten inguruan interesa duten pertsonen edo erakundeen iritzia ezagutzeko prozedurak, hartara herritarrek egindako proposamenak dagoen aurreproiektuan sartu ahal izateko eginak.

2. Kontu bereziki garrantzitsuak xede dituzten foru arauen aurreproiektuak prestatzeko lanetan herritarrek parte hartzeko formak ezarriko ditu Foru Aldundiak. Xede horien artean egongo dira genero inpaktu handia dutenak, hau da, emakumeek eta gizonek baliabideetarako sarrera eta baliabideen gaineko kontrola izatearekin lotuak.

3. Foru arauen aurreproiektuak egiteko uneko herritarren partaidetza foru arau honetako 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan zehazten diren pertsonen edo herritarren erakundeen partaidetzaren bidez gauzatu da.

Aurreko paragrafoan aipatutako herritarren erakundeek edo pertsonak foru arau baten aurreproiektu jakin bat prestatzeko prozesuan parte hartzea eskatu ahal izango dute, dagokien jardura esparruan edo interesetan eragin berezia duela irizten diotenean. Foru Aldundiak partaidetza eskariaren gaineko erabaki arrazoitua hartuko du beranduenez eskaera jaso denetik 30 eguneko epean.

4. Foru Aldundiak modu berezian sustatuko du herritarren partaidetza Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko foru arauen aurreproiektuak urtero egiteko, Aldundia Lurralde Historikoko Gobernuaren organo exekutiboa den aldetik aurrekontuek jarduera politikoa duten garrantzia kontuan hartuta.

Herritarren partaidetza kanpo geratzen da espresuki zerga izaerako foru arauen aurreproiektuak egiteko prozesuetan.

5. Artikulu honetan ezartzen diren herritarren partaidetzarako formak egokituko egingo zaizkio diputatu nagusiak, Batzar Nagusien aurrean, betetzeko konpromisoa hartzen duen lege-gintzaldiko egutegiari.

**Artículo 23. Efectos de las consultas populares.**

1. Determinados los resultados de una consulta popular, la Diputación Foral, en el plazo de tres meses, y previo informe del departamento competente por razón de la materia, adoptará un acuerdo en el que precise la forma en que los resultados obtenidos afectan a la decisión o política a adoptar. Específicamente, la Diputación Foral deberá establecer si los resultados obtenidos a través de la consulta popular suponen la renuncia al proyecto, la presentación de un proyecto alternativo, su modificación o si, por el contrario, pretende continuar con el proyecto en los mismos términos en que fue propuesto. En el caso de que acuerde modificar el proyecto deberá precisar las modificaciones que se incorporarán al mismo.

2. El acuerdo de la Diputación Foral deberá ser motivado, indicando, en caso de que no se adecue a los resultados de la consulta popular, las razones por las que decide no acogerlos.

3. El acuerdo de la Diputación Foral será publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el plazo de 30 días desde que el citado acuerdo haya sido adoptado por la Diputación Foral.

4. El acuerdo de la Diputación Foral por la que se pone fin a la fase de la consulta popular permite continuar con la tramitación del procedimiento.

**CAPÍTULO TERCERO. DE LA PARTICIPACIÓN EN LA ELABORACIÓN DE ANTEPROYECTOS DE NORMAS FORALES**

**Artículo 24. La participación ciudadana en la elaboración de los anteproyectos de normas forales.**

1. Son procedimientos de participación en la elaboración de anteproyectos de normas forales los dirigidos a conocer las propuestas de las personas o entidades interesadas en relación con el ejercicio de la iniciativa normativa por parte de la Diputación Foral, de forma que puedan incorporarse al correspondiente anteproyecto propuestas realizadas por la ciudadanía.

2. La Diputación Foral establecerá formas de participación ciudadana en la elaboración de los anteproyectos de normas forales que tengan como objeto cuestiones de especial relevancia, entre las que se considerará las que tengan un impacto de género, es decir, cuestiones que tengan un alto impacto en el acceso y control de los recursos por parte de mujeres y hombres.

3. La participación ciudadana en la elaboración de anteproyectos de normas forales se realizará a través de la participación de las personas o de entidades ciudadanas indicadas en el artículo 8.1 y 8.2 de esta norma foral.

Las personas o entidades ciudadanas previstas en el párrafo anterior podrán solicitar la participación en la elaboración de un determinado anteproyecto de norma foral cuando consideren que incide de forma especial en su ámbito de actuación o de intereses. La Diputación Foral resolverá de forma motivada sobre la solicitud de participación, a más tardar, en el plazo de 30 días desde la recepción de la solicitud.

4. La Diputación Foral impulsará de forma especial, la participación ciudadana en la elaboración anual del Anteproyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico, dada la importancia determinante de los presupuestos en la actuación política de la misma, como órgano ejecutivo de Gobierno del Territorio Histórico.

Queda expresamente excluida la participación ciudadana en la elaboración de los anteproyectos de normas forales de naturaleza tributaria.

5. La incorporación de las formas de participación ciudadana establecidas en este artículo se acomodarán al calendario legislativo cuyo cumplimiento haya comprometido el Diputado o Diputada General ante las Juntas Generales.

*25 artikulua. Herritarren partaidetza foru arauen aurreproiektuen prestakuntzan.*

1. Foru arau honen 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuek aipagai dituzten pertsona edo erakundeek eskubidea izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenen barruan foru arauaren aurreproiektu bat garatzen hastea proposatzeko ekimena erabiltzeko, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren adinez nagusietatik gutxienez ehuneko bi ordezkatzeko badituzte.

2. Foru arauaren aurreproiektu baten ekimena gizabanaoek gauzatzeko, haren berri eman beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, gutxienez proposatzen den foru arauaren aurreproiektuaren helburu den gaia labur azalduz, arrazoiak azalduz eta komunikatzeko bide bat adieraziz –ahal dela, bide telematikoa–.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gehienez ere 30 eguneko epean hartuko du foru arau baten aurreproiektu bat egiteko ekimenaren gaineko erabakia. Proposamena ezetsiz gero, erabakia arrazoitu beharko da, eskatutako foru arauaren aurreproiektua prestatzen hasteari egoki ez irizteko arrazoiak zehaztuz, eta erabaki hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan argitaratu beharko da.

*26. artikulua. Herritarren partaidetza foru arauen aurreproiektuen prestakuntzan.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, dituen eskumenen eremuan, herritarrek parte hartzeko prozesuak ezarriko ditu, hala nola partaidetzazko aurrekontuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetako alderdi batzuk lehenesten laguntzeko, herritarren partaidetza maila handitzeko eta hobetzeko.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztuko du, Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren irizpide orokorrak erabakitzen dituen Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez zehaztu ere, gastuen partiden zer ehuneko edo zenbateko gordeko diren partaidetzazko aurrekontuen prozeduraren bidez erabakitzeko.

3. Aurreko apartatuko herritarren partaidetza prozesuak erregelamenduz garatuko dira, titulu honetako lehenengo kapituluaren ezarritako printzipio eta prozeduren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egiteko prozeduraren berezitasunak errespetatzeaz gain. Beti ere, behar besteko aurrerapenaz egin behar da, partaidetza prozesuaren emaitzak dagokion aurrekontuen foru arauaren tramitazioan txertatu ahal izateko.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetzazko aurrekontuen prozesuak sustatuko eta hedatuko ditu ekintza positiboan, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, eta unibertsaltasunaren zein autoarauketaren printzipioen arabera, herritarren partaidetza bultzatzeko eta errazteko.

LAUGARREN KAPITULUA. HERRITARREK DELIBERAZIOZKO PARTAIDETZARAKO BESTE TRESNA OSAGARRI BATZUEZ PARTE HARTZEA

*27. artikulua. Partaidetzarako tresnen malgutasuna.*

Partaidetza prozesu jakin baten ezaugarrietara eta eskaeretara moldatze aldera, herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak, bere ekimenez, eta prozedura jakin baten barnean partaidetza prozesu bat egiteko interesa duten herritarren erakundeei aurrez kontsulta egini, edota erakunde horietakoren baten ekimenez, ezarri ahal izango du partaidetza prozesua beste modalitate edo tresna batzuen bidez garatzea, edo beste aldagai batzuk sartu ahal izango ditu foru arau honetan

*Artículo 25. Iniciativa ciudadana para la elaboración de los anteproyectos de normas forales.*

1. Las entidades ciudadanas a que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 8 de esta Norma Foral gozarán del derecho de iniciativa para proponer el inicio del desarrollo de un anteproyecto de Norma Foral en el ámbito de competencias correspondientes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, siempre que representen, al menos, el dos por ciento de las personas residentes mayores de edad del conjunto del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. El ejercicio de la iniciativa para la elaboración de un Anteproyecto de Norma Foral parte de personas individuales deberá notificarse a la Diputación Foral de Gipuzkoa, incluyendo al menos una breve descripción del asunto objeto del anteproyecto de Norma Foral propuesto, su justificación y un cauce de comunicación que preferentemente será a través de un procedimiento telemático.

3. La Diputación Foral de Gipuzkoa resolverá, en el plazo máximo de 30 días, sobre la iniciativa presentada para la elaboración de un anteproyecto de Norma Foral. La resolución, en el caso de desestimación de la propuesta deberá ser motivada, especificando las razones por las que no se considere oportuno iniciar la elaboración del anteproyecto de norma foral solicitado y deberá ser publicado en sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 26. Procesos de participación ciudadana en la elaboración de los presupuestos.*

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa, dentro de su ámbito competencial establecerá procesos de participación ciudadana, como presupuestos participativos, con el objeto de contribuir a la priorización sobre aspectos determinados del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con la finalidad de incrementar y mejorar el grado de participación de la ciudadanía.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa, por acuerdo de su Consejo de Gobierno en el que se adopten las Directrices Generales de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico, determinará el porcentaje o cuantía y las partidas de gastos que se reservarán para su determinación a través del procedimiento de Presupuestos Participativos.

3. Los procesos de participación ciudadana a los que se refiere el apartado anterior se desarrollarán reglamentariamente de acuerdo a los principios y procedimientos establecidos en el capítulo primero del presente título, sin perjuicio de las particularidades relativas al procedimiento de elaboración del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa, debiéndose realizar, en todo caso, con la suficiente antelación para poder integrar los resultados del proceso de participación en la tramitación de la correspondiente Norma Foral de presupuestos.

4. La Diputación Foral de Gipuzkoa fomentará la promoción y difusión de procesos de presupuestos participativos con base en los principios de universalidad y auto-reglamentación a través de acciones positivas, información, formación y sensibilización, con el objeto de fomentar y facilitar la participación de la ciudadanía en los mismos.

CAPÍTULO CUARTO. DE LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA A TRAVÉS DE OTROS INSTRUMENTOS COMPLEMENTARIOS DE DELIBERACIÓN PARTICIPATIVA

*Artículo 27. Flexibilidad en los instrumentos de participación.*

A los efectos de poder adaptarse a las características y exigencias de un proceso participativo determinado, el órgano competente en materia de participación ciudadana, por propia iniciativa, previa consulta a las entidades ciudadanas interesadas en la realización de un proceso participativo en el seno de un procedimiento determinado, o a iniciativa de alguna de éstas, podrá establecer que el proceso participativo se realice mediante otras modalidades o instrumentos, o introducir otras



oro har ezarrita dagoen deliberaziozko partaidetza prozesuan. Herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak bere erabakia arrazoitu beharko du, modu garbi eta zuzenean zehaztuz zein izan diren malgutze edo berritze horien arrazoiak.

**28. artikulua. Partaidetzarako tresna osagarriak.**

1. Foru Aldundiak partaidetzako tresna osagarriak ezarri ahal izango ditu, foru arau honetan aurreikusiez bestelakoak, baldin eta erakutsi badute egokiak direla herritarren partaidetzako helburuak betetzeko. Tresna horiek erakusten badute oro har egokiak direla, edo, gutxienez, egokitasun hori ez dela aparteko kasuetara mugatzen, foru arau hau aldatzea proposatu ahal izango du Foru Aldundiak, hartara tresna horiek oro har gehitzeko.

2. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak proposaturik, Foru Aldundiak ezarri ahal izango du herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak partaidetzarako tresna berria aplikatu ahal izatea ekarriko duen erregulazioa.

IV. TITULUA

HERRITARREN ERAKUNDEAK PARTAIDETZA PROZESUAN ETA ERREGISTROA

LEHEN KAPITULUA. HERRITARREN ERAKUNDEAK ETA ERREGISTROA

**29. artikulua. Herritarren erakundeak.**

1. Herritarren erakunde dira, foru arau honek arautzen duen partaidetzaren ondorioetarako, bai pertsona juridikoak, irabazi asmorik gabekoak, duten forma juridikoa eta izaera dena dela, bai izaera juridikorik gabeak ere, baldin eta interes kolektibo orokorren zein sektorialen defentsa baitute xede, beren jarduerak, eskusiboki edo ez, Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan, edo lurraldearen zati batean, garatzen dituztenean.

2. Foru arau honen ondorioetarako, kanpoan geratzen dira erakunde politikoak.

**30. artikulua. Herritarren Partaidetzarako Erakundeen Foru Erregistroaren kudeaketa.**

1. Foru Erregistroaren kudeaketa herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoari egokituko zaio.

2. Aurreko apartatuan zehaztutako Foru Erregistroak balioa izango du bakarrik foru arau honetan arautzen den herritarren partaidetza sustatzeko, eta ez du eragin mugatzailezik izango inskribatuta ez dauden erakundeen partaidetzan.

3. Foru Aldundiak maila berekotzat izango ditu lankidetzako harremana ezarria duen toki erakundearen Herritarren Partaidetzarako Erregistroko erregistroak eta Aldundiak berak zuzenean egindako erregistroak.

**31. artikulua. Herritarren Partaidetzarako Erakundeen Foru Erregistroaren funtzionamendua.**

1. Herritarren Partaidetzarako Erakundeen Foru Erregistroa bakarria izango da.

2. Erakunde bakoitzarentzat orri bat irekiko da, eta horretan erasota lagako dira izen emateari buruzko datu guztiak; hasierako izen ematetik aurrera Foru Erregistroari aditzera ematen zaizkion aldaketa guztiak ere orri horretan jasoko dira. Erakunde bakoitzari dagokion orriari bertan erasota dauden datuak aipatzen dituzten dokumentu guztiak erantsiko zaizkio, protokolo baten bidez.

variantes en el proceso de deliberación participativa establecido, con carácter general, en esta norma foral. El órgano competente en materia de participación ciudadana deberá motivar su decisión, precisando, de forma clara y directa las razones que justifican esa flexibilización o innovación.

**Artículo 28. Instrumentos complementarios de participación.**

1. La Diputación Foral podrá implantar instrumentos complementarios de participación que no hayan sido contemplados en esta norma foral y que hayan demostrado su idoneidad para el cumplimiento de los objetivos de participación ciudadana. En el supuesto de que esos instrumentos demostrasen su idoneidad con carácter general o, cuando menos, no limitado a casos excepcionales, la Diputación Foral podrá proponer la reforma de esta norma foral para incorporarlos a la misma, con carácter general.

2. A propuesta de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, la Diputación Foral podrá establecer la regulación que haga posible la aplicación del nuevo instrumento de participación por el órgano competente en materia de participación ciudadana.

TÍTULO IV

DE LAS ENTIDADES CIUDADANAS EN EL PROCESO DE PARTICIPACIÓN Y DEL REGISTRO

CAPÍTULO PRIMERO. DE LAS ENTIDADES CIUDADANAS Y DEL REGISTRO

**Artículo 29. Entidades ciudadanas.**

1. Son entidades ciudadanas a los efectos de la participación objeto de regulación en esta norma foral tanto las personas jurídicas, sin ánimo de lucro, cualquiera que sea su forma jurídica y su naturaleza, como las que carezcan de personalidad jurídica, que tengan como fin la defensa de intereses colectivos, ya sean de carácter general o sectorial, que desarrollen sus actividades, de forma exclusiva o no, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en toda su extensión o en una parte del mismo.

2. A los efectos de esta norma foral quedarán excluidas las organizaciones políticas.

**Artículo 30. Gestión del Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación.**

1. La gestión del Registro Foral corresponderá al órgano competente en materia de participación ciudadana.

2. El Registro Foral establecido en el apartado anterior solo tendrá validez a los efectos de fomentar la participación ciudadana objeto de regulación en esta norma foral, sin ningún efecto limitativo de la participación de las entidades que no estén inscritas.

3. La Diputación Foral considerará los asientos de los Registros para la Participación Ciudadana de los Entes Locales con los que haya establecido relación de colaboración en igualdad de condiciones que los asientos realizados directamente en el mismo.

**Artículo 31. Funcionamiento del Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación.**

1. El Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación tendrá carácter único.

2. Para cada entidad se abrirá una hoja en la que se harán constar todos los datos objeto de la inscripción y a la que se incorporarán cuantas variaciones sean notificadas al Registro Foral con posterioridad a la inscripción inicial. A la hoja correspondiente a cada entidad se adjuntarán, mediante un protocolo, todos los documentos que hagan referencia a los datos que consten en la misma.

3. Foru Erregistroan izena emateko eskariarekin batera erakundearen aktaren kopia kautotu bat aurkeztu behar da, bere izaeragatik dagokion erregistroan izena eman izanari buruzko ziurtagiriarekin batera, horrelakorik baldin bada. Orobat, erakundeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan duen helbidea jasoko da horretan, eta baita zuzendaritza karguak edo ordezkariak eta osaera organikoko beste pertsonak ere, datuak sexua bereiziz. Erakundearen ordezkariak edo zuzendaritzako kideek jakinarazi behar dituzte, nahitaez, erakundearen egoerari eta baldintzei buruz garrantzitsuak diren beste-lako datu edo gertakari guztiak, horien artean dela erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapenarekiko hartua duen konpromisoa, hala badagokio.

4. Edonola ere, Erregistroan inskribatu ahal izango dira, orobat, foru arau honetako 8. artikuluko 2. apartatuak aipatzen dituen erakunde guztiak, aski izanik identifikaziorako ezinbestekoak diren datuak.

5. Foru Erregistroan izena emandako erakundearen ordezkariak edo zuzendaritzako kideek gaurkoturik mantendu behar dituzte, derrigorrean, erakundeari buruzko datuak. Erakundearen egoerari lotutako gertakariak edo datu garrantzitsuak ez jakinarazteak Erregistroko izen-ematea etenik uztea ekar dezake, jakinarazpen falta hori konpondu arte.

6. Izen-emateetarako epea bi hilabetekoa izango da, eskaria eta eskatzen den dokumentazioa behar bezala aurkeztu direnetik kontatzen hasita. Eskaera baietsizat joko da epe horretan berariazko ebazpenik ez badago. Epe hori, dena den, etenik geratuko da, izen-emateari buruzko edozein datu edo dokumentu konpontzeko edo argitzeko egiten den errekerimenduren bat izanez gero.

7. Izen-ematea ukatzeko erabakiak arrazoituta egon behar du.

8. Erregistroan ez da onartuko genero desberdintasuna iraunarazten duten erakunderik inskribatzea.

#### BIGARREN KAPITULUA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO JARDUERA SUSTATZEA

*32. artikulua. Herritarren partaidetzarako erakundearen jardueraren sustatzeko diru laguntzak.*

1. Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan urtero sartuko da herritarren partaidetza sustatzeko programa bat.

2. Arlo honetan, herritarren erakundeentzako diru laguntzak ezarriko dira, partaidetzari, partaidetzaren kulturaren sustapenari edo partaidetzarako prestakuntzari lotutako jarduerak sustatzearren.

3. Artikulu honetan aipatzen diren diru laguntzak batez ere gizarte kolektibo desfaboratuenen, babesgabeenen edo gizarte bazterketa jasateko arrisku handienean daudenen jarduerak bultzatzera zuzenduko dira. Orobat kontuan izango da, bereziki, genero berdintasunaren eta adinekoen eta gazteen jardueraren sustapena, eta jarduerak genero ikuspegitik planifikatzen dituzten eta berdintasuna sustatzeko neurriak garatzen dituzten erakundeak saritu ahal izango dira. Ez zaio diru laguntzarik emango bere jardueraren arabera berdintasunari kaltea eragiten dionari.

4. Artikulu honetan aurreikusitako diru laguntzak arautzen dituztenak oinarri orokorrak, aurrekontuko arauak eta diru laguntzen araubide juridikoari buruzko araudi orokorra izango dira.

*33. artikulua. Herritarren partaidetzarako erakundearen jardueraren sustatzeko hitzarmenak.*

1. Foru Aldundiak eta herritarren erakundeek lankidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dituzte, baldin eta azken horiek esperientzia badute partaidetza prozesuak bultzatzeko eta

3. La solicitud de inscripción en el Registro Foral deberá ir acompañada de copia del acta de constitución de la entidad, autenticada, así como del certificado de inscripción en el registro que le corresponda por su naturaleza, si procede. Asimismo, deberá constar el domicilio de la entidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como sus cargos directivos o representantes y demás personas que formen parte de la composición orgánica, desagregando los datos por sexo. Los y las representantes o personas directivas de la entidad tienen la obligación de hacer constar todos los demás datos o hechos que sean relevantes respecto a la situación y circunstancias de la entidad, incluyendo su compromiso con el fomento de la igualdad de mujeres y hombres, si fuera el caso.

4. En cualquier caso, podrá inscribirse en el Registro, igualmente, cualquiera de las entidades a que hace referencia el apartado 2 del artículo 8 de esta norma foral, siendo suficientes los datos que sean indispensables para su identificación.

5. Las personas representantes o directivas de la entidad objeto de inscripción en el Registro Foral estarán obligadas a mantener actualizados los datos relativos a la misma. La ausencia de notificación de hechos o datos relevantes respecto a la situación de la entidad podrá ser motivo de suspensión de la inscripción en el Registro Foral, quedando hasta su subsanación en suspenso en el registro.

6. Las inscripciones se realizarán en el plazo de dos meses desde la presentación en forma de la solicitud y la documentación requerida. Se entenderá estimada la solicitud a falta de resolución expresa en el plazo señalado. El transcurso del plazo quedará suspendido en el supuesto de cualquier requerimiento para subsanar o aclarar cualquier dato o documento relativo a la inscripción.

7. La resolución denegatoria de la inscripción habrá de ser motivada.

8. En ningún caso se admitirán en el registro entidades perpetuadoras de la desigualdad de género.

#### CAPÍTULO SEGUNDO. DEL FOMENTO DE LA ACTIVIDAD PARA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

*Artículo 32. Subvenciones para el fomento de la actividad de las entidades ciudadanas para la participación.*

1. En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico se incluirá, anualmente, un programa para el fomento de la participación ciudadana.

2. En este ámbito, se establecerán subvenciones para las entidades ciudadanas con el fin de fomentar actividades vinculadas a la participación, al fomento de la cultura participativa o a la formación en participación.

3. Las subvenciones a que se hace referencia en este artículo impulsarán especialmente las actividades de los colectivos sociales más desfavorecidos o desprotegidos o que sufran mayor riesgo de exclusión social. Asimismo, se tendrá en cuenta, especialmente, el fomento de la igualdad de género y de la actividad de personas mayores y jóvenes, y se podrá primar a entidades que planifiquen sus actividades desde la perspectiva de género y que desarrollen medidas para promover la igualdad, no concediendo subvención a aquellas otras que, en función de sus actividades, supongan un perjuicio para la misma.

4. La concesión de las subvenciones previstas en este artículo se regirá por sus bases generales, por las normas presupuestarias y por la normativa general relativa al régimen jurídico de las subvenciones.

*Artículo 33. Convenios para el fomento de la actividad de las entidades ciudadanas para la participación.*

1. La Diputación Foral podrá suscribir convenios de colaboración con entidades ciudadanas que, teniendo acreditada una significativa representación social, tengan experiencia en el

aurrera eramateko lanean, eta prozesu horietan generoaren dimentsioa txertatzen badute. Herritarren erakundeek beren gain hartzen dituzten betekizunen edukia herritarren partaidetzaren arloko jardueren ingurukoa izango da, esaterako partaidetza prozesuen sustapen, zabalkunde eta gauzatzearen zein horietarako prestakuntza eta ikaskuntzaren ingurukoa.

2. Foru Aldundiak lagundu egingo du herritarren erakundeak hitzarmenean finkatutako obligazioak bete ahal izateko beharrezko baliabide eta tresnaz hornitzen.

**34. artikulua.** *Herritarren partaidetzari buruzko zabalkundea eta komunikazioa.*

1. Foru Aldundiak hainbat zabalkunde jarduera garatuko ditu, egoiliarrek jakin dezaten, batetik, Lurralde Historikoan herritarren partaidetza bultzatzeko politika garatzen ari dela, eta bestetik, zein diren foru arau honetan ezarritako herritarren partaidetzarako tresnak.

2. Herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoak eta Foru Aldundiko departamentuek komunikazio eta sensibilizazio kanpainak egingo dituzte, herritarren partaidetzaren garrantziaren gainean eta iragartzen diren prozesuen gainean.

Kanpaina horien ardatz bakarra herritarren partaidetza eta partaidetza horren garrantzia izango da, eta aldiro saihestu behar da erabilera alderdikoia edo erakunde baten aldeko erabilera egitea.

**35. artikulua.** *Foru Aldundiaren barne eta kanpo prestakuntza partaidetzarako.*

1. Foru Aldundiak, barne prestakuntzarako jardueren birtarte, partaidetzaren kulturaren garapena sustatuko du bere zerbitzuko langileen artean. Prestakuntza-jarduera horiek genero ikuspegia jasoko dute. Foru arau honetako helburuak lortzearen, Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza prozesuetako teknika eta kudeaketa mailako prestakuntza sustatuko du bere zerbitzuko langileen artean; horretarako, gutxienez partaidetzarako prestakuntza ikastaro bat egingo du urtean, hain zuzen foru arau honetan jasotzen diren xedapenak baldintzarik egokienetan gauzatzea lortu ahal izan dadin.

2. Foru Aldundiak kanpoko prestakuntza jarduerak garatuko ditu, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen zuzenduak, prestakuntza eta informazioa emateko herritarren partaidetzari nahiz eskubideei buruz, administrazio publikoen funtzionamenduari buruz eta haiek herritarrekin dituzten obligazioei buruz. Horretarako, prestakuntza-programa bat ezarriko du urtero, zeinetan genero ikuspegia txertatuko baita, Gipuzkoako herritarrei eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten herritarren erakundeiei zuzendua.

3. Prestakuntza programek ziurtatu egingo dute horietan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izatea, eta genero berdintasunaren printzipioa era transbertsalean jasoz planifikatuko dira, funtsezko printzipioa baita hori herritarren partaidetzarako prozesuetan.

## V. TITULUA

### HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ANTOLAKUNTZA

#### LEHEN KAPITULUA. PARTAIDETZA PROGRAMA

**36. artikulua.** *Partaidetza Programa.*

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak proposatuta, Foru Aldundiak Partaidetza Programa onartuko du, Foru Aldundiko departamentuekin kontsultatu ondoren.

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak, agintaldiko lehen urtearen barnean, legegintzaldirako Partaidetzako Pro-

impulso y realización de procesos participativos y sepan integrar la dimensión de género en los mismos. El contenido de las obligaciones contraídas por las entidades ciudadanas versará sobre actuaciones referidas a la participación ciudadana, como promoción, difusión, realización de procesos participativos, así como formación y aprendizaje.

2. La Diputación Foral contribuirá a dotar a las entidades ciudadanas de los medios y recursos necesarios para la realización de las obligaciones fijadas en el convenio.

**Artículo 34.** *Difusión y comunicación sobre la participación ciudadana.*

1. La Diputación Foral realizará actividades de divulgación destinadas a que las personas residentes tengan conocimiento de la política de impulso de la participación ciudadana en el Territorio Histórico, así como de los instrumentos de participación ciudadana establecidos en esta norma foral.

2. El órgano competente en materia de participación ciudadana y los distintos departamentos de la Diputación Foral realizarán campañas de comunicación y sensibilización sobre la importancia de la participación ciudadana y sobre los procesos a realizar.

Estas campañas se deberán centrar exclusivamente en la participación ciudadana y su importancia, evitando en todo momento hacer un uso partidista y/o institucional de las mismas.

**Artículo 35.** *Formación interna y externa de la Diputación Foral para la participación.*

1. La Diputación Foral promoverá el desarrollo de la cultura de la participación entre el personal a su servicio mediante la ejecución de actividades de formación interna. Estas actividades formativas integrarán la perspectiva de género. Para lograr los objetivos establecidos en la presente norma foral, la Diputación Foral de Gipuzkoa formará al personal a su servicio en técnicas y gestión de procesos de participación mediante la realización, como mínimo de un curso de formación en participación al año, de forma que las disposiciones contenidas en esta norma foral puedan lograrse en condiciones satisfactorias.

2. La Diputación Foral desarrollará actividades externas de formación destinadas a las personas residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con el objeto de formarlas e informarlas sobre participación ciudadana, sus derechos, y sobre el funcionamiento de las administraciones públicas y sus obligaciones para con la ciudadanía. Para ello establecerá anualmente un Programa de Formación al respecto, en el que se integrará la perspectiva de género, orientado a la ciudadanía y aquellas entidades ciudadanas que desarrollen su actividad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. Los programas de formación asegurarán la participación en los mismos de mujeres y hombres de forma equilibrada y se planificarán integrando el principio de igualdad de género de forma transversal, como un principio fundamental en los procesos de participación ciudadana.

## TÍTULO V

### DE LA ORGANIZACIÓN PARA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

#### CAPÍTULO PRIMERO. DEL PROGRAMA PARTICIPATIVO

**Artículo 36.** *El Programa Participativo.*

1. A propuesta de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, la Diputación Foral aprobará el Programa Participativo, previa consulta a los distintos departamentos de la Diputación Foral.

La Comisión Foral para la Participación Ciudadana elaborará, durante el primer año de mandato, el Anteproyecto de Pro-

gramaren Aurreproiektua egingo du, eta publiko egingo du foru arau honetako 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuek alpagai dituzten pertsonen eta herritarren erakundeek aukera izan dezaten haren edukiaren inguruko partaidetza ekimena gauzatzeko; ekimen hori erabiltzeko, hilabeteko epea ezarriko du. Aldi berean, Gizarte Kontseiluari aurkeztuko dio.

Aipatutako epea amaituta, Foru Batzordeak Partaidetzako Programaren Proiektua onartuko du.

Partaidetzako programa aintzat hartuko da Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorra egiteko.

2. Diputatu nagusiak, agintaldiko lehen urtean zehar, Batzar Nagusietan aurkeztuko du Partaidetza Programa.

